Inkestatutako Bigarren Hezkuntzako ikasleen jatorri geografikoa aztertzean, %40,0 Estatu espainiarrean jaioak direla ikusten da. Datu hori Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuko proportziotik urrun dago, hamar haurretik bederatzikoa zen-eta. Ondoren, jatorri latinoamerikarreko ikasleak (%23,1), afrikarra (%14,1) eta asiarra (%5,7) daude. Espero daitekeen moduan, gurasoetako bat atzeritar jatorrikoa duten Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean, atzeritar jatorri gehiago aurkituko ditugu Lehen Hezkuntzako ikasleen artean baino. Horien artean, atzeritar ugarietak jatorri latinoamerikarrekoak dira.

33. grafikoa Bigarren Hezkuntzako ikasleen jaiotza-lekua, %


92.G. Zer herrialdetan jaio zen haurra?
Iturria: egileek egina

Bigarren Hezkuntzako ikasleen atzerritar jatorriko gurasoen administrazio-egoerari dagokionez, 34. grafikoa ikus daiteke paper-kontuetan egoera egonkorrean daudela inkestaturako nazionalitate espainiarreko gurasoen %56 inguru eta bizileku- eta lan-baimen iraunkorra duten pertsonen %33. Bikotekideen kasuan, elkarriketatutakoen ia laurden batek ez daki zer egoeratan dagoen.

34. grafikoa Gurasoen administrazio-egoera, %

93.G. Zein da zure administrazio-egoera? Eta zure bikotekidearena?
Iturria: egileek egina

35. grafikoa ikus daiteke Espainiara 2004az geroztik iritsi zela %50,3. Dena den, gehienak 2004tik 2007ra bitartean iritsi ziren (%39,5). Aurreko aldietako datuak antzekoak dira. 1998 baino lehen, %21,2 iritsi zen, eta %23,7 Espainiako geografiko lekuren batean kokatu zen, 1999tik 2003ra bitartean. Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoeekin alderatuta, haiek pixka bat lehenagoko iritsi ziren Bigarren Hezkuntzakoak baino. Dena den, bi multzoetan iritsiera-kopurua nabarmen txikitu zen 2008ko krisia hasi zenetik.

35. grafikoa Espainiara iristeko garaia, %

94.G. Zer urtetan iritsi zinen Espainiara?
Iturria: egileek egina

Gehienen jatorrizko hizkuntza gaztelania da, 4. taulan ikus daitekeen moduan. Zehazki, inkestatutako atzerritar jatorriko pertsona helduen %49,5ek eta haien bikotekideen %43,4k hizkuntza hori erabiltzen dute beren eguneroko bizitzan. Arabiera da gehien erabiltzen den bigarren hizkuntza; dena den, inkestatutako pertsonak erreferentziazat hartuta, alde hori 24,7 puntukoa da. Errumaniera ere agertzen da inkestatutako pertsonen eta haien bikotekideen erabiltzen dituzten lehen bost hizkuntzen artean, Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoen kasuan bezala.

4. taula Jatorrizko hizkuntza, %

	P. Inkestatua	Bikotekidea
gaztelania	45,9	43,4
arabiera	21,2	15,2
ingelesa	7,5	0,0
errumaniera	7,5	7,5
kreolera	6,6	3,3
bambara	2,5	0,0
frantsesa	2,5	2,5
senegaldar hizkuntza	2,5	2,5
Asiako beste batzuk	1,9	1,9
Ed/ee	1,9	0,0
euskara	0,0	0,0
wolofera	0,0	2,5

95.G. Zein da zure jatorrizko hizkuntza? Eta zure bikotekidearena?
Iturria: egileek egina

Laburbilduz

1. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasle gehienak euskara nagusi den hizkuntza-ereduetan daude matrikulatuta; hau da, D eta B ereduetan. B ereduko matrikulazioen proportzioa Lehen Hezkuntzako ikasleen antzekoa da. Bestalde, zenbait hizkuntza arintasunez hitz egiten dituzte, familiako hizkuntza barne. Hori kontuan hartuta, ia guztiek diote ez dutela arazorik gaztelaniaz jarduteko.
 2. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen arabera, etxean gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da. Arabiera eta euskara dira, hurrenez hurren, familia-ingurunean komunikatzeko eta adierazteko bigarren eta hirugarren aukera, etxeetan presentzia txikiagoa badute ere. Zehazki, datuen analisiaren arabera, euskara erabiltzeko joera handiagoa dago familia autoktonoetan atzerritar jatorriko familietan baino.
 3. Familia gehienetan, gurasoak ezkontuta daude, eta presentzia handiena duen ikasketa-maila derrigorrezkoaren ondoko heziketa da, Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen gurasoen kasuan bezala. Bestetik, lanbide-heziketako ikasketak eta unibertsitate-ikasketak gutxiago agertzen dira Bigarren Hezkuntzako ikasleen atzerritar jatorriko gurasoen artean.
 4. Oro har, gurasoak lanean ari dira. Hala ere, langabezia handiagoa da bikotea osatzen duten bi pertsonetako batean. Modu berean, etxeko diru-sarrerak lanetik iristen dira gehienbat, eta gizarte-laguntzak oinarritzko ekarpen bat dira hamar familiatik ia bitan. Ekonomikoki etxean moldatzen direla hautematen dute, Lehen Hezkuntzako ikasleen azterketan ere egoera ekonomikoa erositzat deskribatzen duten moduan. Horren aurkakoa hautematen dute familia autoktonoek. Bestetik, atzerritar jatorriko familia ugari alokairuan bizi dira. Familia autoktonoen artean, berriz, gehienak etxebizitzaren jabe dira.
 5. Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen gurasoekin gertatzen den moduan, jatorri ugariak latinoamerikarrak dira. Seme-alaben jatorriari dagokionez, erdiak baino pixka bat gutxiago Estatu espainiarreko lekuren batean jaioak dira. Bigarren Hezkuntzako ikasle horien bigarren jatorria Latinoamerika da, %23rekin, eta Magreb da hirugarrena, %9,0rekin.
-


2

Hezkuntza-esparrua


Lehen hezkuntzako eskola-esparrua

Atal honetan, Lehen Hezkuntzako ikasleek beren artean eta irakasleekin ikastetxearen baitan dituzten erlazioekin lotutako alderdi batzuk aztertuko ditugu, bai eta ikasgelan landutako gai batzuei buruzko gustuak eta lehentasunak, gurasoek ikastetxea aukeratzean izandako interesa, eta haien eta ikastetxearen artean sortzen diren erlazioak ere. Kasu honetan, bost urtetik hamabi urtera bitarteko neska-mutilei egin diegunez inkesta, galderak argiak eta errazak izan dira, behar bezala uler ditzaten.

Horregatik, aurrez ikasleen lagunei buruzko galdera batzuk egin ondoren, gizarte-harremanen atalean aztertuko ditugunak, ikasgelan ikaskideekin gatazkarik izaten duten jakin nahi dugu, eta ea inoiz zuzenean borrokaren batean sartuta egon diren. Hurrengo bi grafikoetan, 36. eta 37. grafikoetan, ikus daitekeen moduan, atzeritar jatorriko ikasleen %38,5ek dio ikasgelan gatazkak izaten direla, eta %31,2k, borrokaren batean sartuta egon dela.


36. grafikoa Borroka ikasgelan, %

13.G. Borrokan ibiltzen al dira zure ikasgelako haurrak?

37. grafikoa Norbera borroketan sartuta egotea, %

14.G. Zuri gertatu al zaizu inoiz? Egin al duzu borrokarik inoiz?
Iturria: egileek egina

Hala ere, noizbait borrokan ibili direla dioten artean (%31,2), ikasgelako gatazka horiek ia ez dira existitu %37,8aren ustez, eta %52,6ren ustez, noiz edo noiz gertatu da. Ohiko borroka hala hautematen dituzten haietan parte hartu duten pertsonen %5,3k (38. grafikoa). Motiboei dagokienez, zerrenda batean (5. taula) agertzen diren arrazoi batzuk direla-eta borrokatu diren galdetu diegu, eta beharrezko arrazoiak adieraz ditzatela, zerrendan ez badaude. Inkestatutako neska-mutilek gehien adierazi duten motiboa jolastea izan da (%21,7); baina, hala ere, %12,5ek adierazi du hitz egiteko moduagatik sartu dela borroketan.

38. grafikoa Borroken maiztasuna, %

15.G. Askotan edo gutxitan gertatzen da? Zer maiztasunez?

5. taula Borroken motiboak, %


Jolasteagatik	21,7
Zure hitz egiteko moduagatik	12,5
Zure fisikoagatik	5,7
Zure gustuengatik	2,9
Desberdina izateagatik	2,8
Neska izateagatik	1,3
Zure diruagatik	0,0
Zure erlijioagatik	0,0
Beste batzuk	43,5

16.G. Motibo hauetako batengatik izan al da?

Iturria: egileek egina

Ondoren, egoera gatazkatsu batzuk aztertuko ditugu, eta inkestatutako atzeritar jatorriko haurren egunerokotasunarekin zer erlazio duten ikusiko dugu. Lehen pertsonan bizi izan dituzten galdetu diegu, eta 39. grafikoan ikus dezakegunez, gutxitan gertatu da. Hala, %17,1 iraindu egin dute ikastetxean, eta zehazki %10,6 desberdina izateagatik iraindu dute; beraz, haurren %27,7 iraindu egin dute ikastetxean. %15,4k esan du jo egin dutela, eta haurren %16,4k, ez dutela haiekin jolastu nahi. %12,5ek gezurra esan dute, ikastetxera ez joateko, eta soilik %1,4 ikasgelan ezkutatzen da, patiora ez ateratzeko jolas orduan.


39. grafikoa Atzeritar jatorriko Lehen Hezkuntzako ikasleek bizi izandako egoerak, %



17.G. Gertatu al zaizu hau inoiz?
Iturria: egileek egina

Ikasgelako ikaskideekiko harremanei buruz egiten duten balorazioa positiboa da (40. grafikoa). Inkestatutako neska-mutilen hiru laurdenek uste du harremanak oso onak direla, %25,6k, normalak direla, eta soilik %0,4k egiten du balorazio negatiboa.

40. grafikoa Ikasgelako ikaskideen arteko harremanen balorazioa, %




18.G. Zer moduz konpontzen zara ikaskideekin?
Iturria: egileek egina

Ikastetxean antolatzen diren ibilaldietan eta jardueretan parte hartzen galdetuta, Lehen Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasle askok erantzun dute guztietan parte hartzen dutela; zehazki, %76,3k antolatutako jarduera guztietan hartzen du parte.

%22,4k dio jarduera batzuetan parte hartzen duela eta beste batzuetan ez. Horretan ere aldea dago Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen kasuan; izan ere, %7,2k dio hori. Bi kolektiboetan, ia mespretxagarria da jarduera bakar batean ere parte hartzen ez duen pertsonen kopurua.


41. grafikoa Ikastetxeak antolatutako ibilaldietako eta jardueretako parte-hartzea, %



19.G. Hartzen al duzu parte ikastetxeak antolatzen dituen ibilaldietan eta jardueretan?
Iturria: egileek egin


Inkestatutako atzerritar jatorriko ikasleen %73,3k eskolaz kanpoko jardueraren batean parte hartzen du, eta horien artean kirol-jarduerak dira nagusi; zehazki, %66,9. %41,8k dio hizkuntzak dituela eskolaz kanpoko jardueratzat. Musika da hirugarrena (%26,4), eta oso gertu daude aisialdiko eta denbora libreko jardueretan (%22,5). Eskola-laguntza eskolaz kanpoko jardura da %21,5entzat. Gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, ikusten da A ereduan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleen %79,7 eskola-laguntzako eskolaz kanpoko eskoletara joaten da; B ereduan, %21,4; eta D ereduan, %15,7.

42. grafikoa Eskolaz kanpoko jarduerak, %



20.G. Hartzen al duzu parte eskolaz kanpoko jardueraren batean?


43. grafikoa Eskolaz kanpoko jardueren motak, %



21.G. Zeinetan? Iturria: egileek egina

Ikasgelaren barruan kultura-aniztasuna nola hautematen duten jakiteko, elkarriketatuak neska-mutilei deskribatzeko eskatu diegu. Horretarako, hiru aukera eman dizkiegu: 1) Guztiak edo ia guztiak hemengoak; 2) Hemengoen eta beste leku batzuetako nahasketa; 3) Guztiak edo ia guztiak beste herrialde batzuetakoak. Ikus dezakegunez, atzerritar jatorriko ikasleen %70,2k hautematen du bere ikasgelan kultura-jatorrien aniztasuna dagoela, eta jatorri autoktonoko ikasleen artean, berriz, %46,4k hautematen du hori. Dena den, jatorri autoktonoko ikasleen ia erdiek diote ikasgelan gehienbat hemengo jendearekin daudela, eta atzerritar jatorriko ikasleen %22,6k dio kultura-aniztasun urria dagoela bere ikasgelan. Atzerritar jatorriko ikasleen %4,9k dio beren ikaskide gehienak hainbat kultura-jatorritakoak direla, eta jatorri autoktonoko ikasleek, berriz, ez dute horrelako baieztapenik egin. Gurutzeetako aldagaiak aztertuz gero, ikus dezakegu itunpeko ikastetxeetan ikasten duten atzerritar jatorriko ikasleek (%40,8) jatorri autoktonoko ikasleekin partekatzen dutela ikasgela, ikastetxe publikoetan ikasten dutenek baino neurri handiagoan (%17,3).


44. grafikoa Kultura-aniztasunaren hautematea ikasgelan, %



22.G. Nolako da zure ikasgela edo zure taldea? Iturria: egileek egina

45. grafikoan agertzen diren datuak kontuan hartuta, esan dezakegu Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleak gustura daudela beren ikasgelarekin eta ikaskideekin. Inkestatutako hamar pertsonatik zortzik dio oso gustura dagoela bere ikasgelarekin eta ikaskideekin; hala ere, %16,4k normaltzat baloratzen du. Matrikulatuta dauden hezkuntza-ereduako gurutzeko aldagaian alde adierazgarriak aurki ditzakegu; hain zuzen ere, A ereduak ikasten dutenak neurri handiagoan baloratzen dute ikasgelarekiko asebetetze-maila normal gisa (%54,7), eta horretan aldea dago B ereduak (%21,5) eta D ereduak (%12,2) ikasten dutenekin alderatuz gero.

45. grafikoa Ikasgelarekiko eta ikaskideekiko asebetetze-maila, %



23.G. Gustuko al duzu zure ikasgela edo zure taldea?
Iturria: egileek egina

Oro har, ez dago Lehen Hezkuntzako ikasleentzat bereziki gustukoa ez den ikasgairik. 6. taulan, zenbait irakasgai daude adierazita. Inkestatutako neska-mutilek horietako bakoitza gustuko duten edo ez adierazi dute. Gertatu ohi den moduan, badira haurrentzat gustukoagoak diren irakasgai batzuk; esaterako, Plastika eta Gorputz-hezkuntza. Ingurunearen ezagutzarekin lotutako irakasgaia da gutxien gustatzen zaiena. Hala ere, %74,9k gustuko du irakasgai hori.


6. taula Irakasgaiak gustukoak dituzten edo ez, %

	Bai	Ez
Plastika	92,7	6,0
Gorputz-hezkuntza	92,7	5,4
Gaztelania	84,6	11,6
Atzerriko hizkuntza	81,8	15,5
Euskara	81,5	15,3
Matematika	80,1	15,8
Inguru	74,9	18,9

25.G. Zein irakasgai dituzu gustukoak eta zein ez?
Iturria: egileek egina

Azkenik, zer-nolako ikasleak diren baloratzeko eskatu diegu; hau da, ea zer uste duten, ikasle onak, normalak edo txarrak diren. 46. grafikoan ikusten den moduan, %72,4k ikasle ontzat du bere burua, eta %26,7k, normaltzat. Bestetik, Lehen Hezkuntzako ia ikasle guztiek diote normalean etxeko lanak egiten dituztela (%97,8).


46. grafikoa Ikasle-motaren autopertzepzioa, %



26.G. Ikasle ona edo txarra zara?
Iturria: egileek egin

Ondoren, ikastetxearekin eta beren seme-alabekin lotutako gaiei buruzko Lehen Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasleen gurasoen iritziak aztertu ditugu; adibidez, ikastetxearen aukeraketa, bertan zenbat denbora daramaten matrikulatuta eta familien eta ikastetxearen artean ezartzen diren harremana. Gurasoei eskatu zaie beren seme-alaben ikastetxea aukeratzeko baliatu dituzten hiru motiboak hautatzeko, garrantziaren arabera ordenatuta. 47. grafikoan, arrazoien multzo bati buruzko lehen aipamena eta guztizko aipamenak ikus daitezke. Ikastetxea familiaren etxetik hurbil egotea izan da inkestatutako pertsonen lehen arrazoia, bai lehen aipamen gisa (%55,4) bai guztizko aipamen gisa (%72,9). Guztizko aipamenetan, prezioa da bigarrena (%28,2), lehen portzentajetik urrun; eta hirugarrena, kalitatea (%23,8). Hezkuntza-eskaintza aukeratzeko motiboa izan zen atzeritar jatorriko familien %17,4rentzat, eta %12rentzat ikastetxeak erlijioa edukitzea ikastetxea hautatzeko aukera bat izan da.

47. grafikoa Ikastetxea aukeratzea. Lehen aipamena eta guztizkoak, % (Iradokitako erantzuna)




65.G. Zergatik aukeratu zenuen ikastetxe hau zure seme-alabak matrikulatzeko?
Iturria: egileek egina


Gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, zenbait alde adierazgarri ikus daitezke; esate baterako, itunpeko ikastetxeetan ikasten dutenen %46,7ren ustez hezkuntza-eskaintza garrantzitsua da, eta ikastetxe publikoetan matrikulatutakoen %17,0k du iritzi hori. Ikastetxea kalitatearen arabera aukeratzeari dagokionez, gurasoetako bat soilik atzeritar jatorrikoa den kasuetan %49,7k hori adierazi du, eta biak atzeritar jatorrikoak diren kasuetan, %19,7k.

Hizkuntza-ereduari dagokionez, A ereduari ikasten dutenen ikasleen gurasoen %33,1ek dio ez zuela berak erabaki seme-alabak egun dauden ikastetxean matrikulatzea; B ereduari dauden %1,3ri gertatu zaio hori bera, eta D ereduko %1,7ri. Ikastetxea aukeratzeko orduan erabaki falta gehien izan dutenak ikasketarik ez duten edo soilik lehen mailako ikasketak dituzten gurasoak izan dira (%24,5), bigarren mailako ikasketak eta lanbide-heziketakoak dituzten gurasoetatik (%2) nabarmen bereiziz.

48. grafikoa ikus daitekeen moduan, ia ez da ikastetxe-aldaketarik izan azken urtean; soilik %5,3k dio beste ikastetxe batera aldatu direla. Ikastetxez aldatu diren artean, %68,5ek behin bakarrik egin du, eta %23,4k, bi aldiz edo gehiagotan (49. grafikoa).

48. grafikoa Ikastetxez aldatzea, %


67.G. Zure seme-alaba ikastetxez aldatu al duzu azken urtean?

49. grafikoa Ikastetxe-aldaketen kopurua, %


68.G. Zenbat aldiz aldatu duzu ikastetxez zure seme-alaba?
Iturria: egileek egina

Ikastetxerako, erreferentziazko pertsona oro har ama izaten da. Hala dio %80k. Aita neurri txikiagoan izaten da, %27,2k dioenez.

Azkenik, familiaren eta ikastetxearen arteko harremanak ugariak direla hautematen dute familiek. Izan ere, 50. grafikoa ikus dezakegun moduan, %80,8k hori dio, harreman dezente eta ugari dutela uste dutenak erreferentziazkat hartuta. Aldiz, %18,8ren iritziz, harreman gutxi dute ikastetxearekin, eta %0,4ren ustez, batere ez. Hori horrela, harreman gutxi edo batere ez zergatik dagoen galdetu diegu. %67,4k dio ez duela beharrezkoa ikusten, eta %11,3k, komunikazio-hizkuntzarekin arazoak dituelako.

50. grafikoa Ikastetxearekiko harremana, %

70.G. Nola deskribatuko zenuke ikastetxearekiko harremana?

51. grafikoa Ikastetxearekiko harremanik ezaren motiboak, %

71.G. Eta, zure ustez, zergatik dago harreman gutxi edo batere ez?
Iturria: egileek egina

Laburbilduz


1. Lehen Hezkuntzako ikasgelako harremanak eta ikaskideekiko gogobetetzea positibotzat hartzen dute atzeritar jatorriko ikasleek. Dena den, borrokak ere izaten dira, baina ez sarritan. Bizi izan dituztenek diotenez, motiboak jolasarekin lotuta daude, eta neurri txikiagoan, hitz egiteko moduarekin lotuta. Lehen Hezkuntzako ikasleek bizi izan dituzten egoera desatseginen artean, iraina da ohikoena; eta horren atzetik, indarkeria fisikoa eta eskola-orduetan aisialdia partekatzen ez uztea.
 2. Ikastetxeak antolatutako jarduera guztietan atzeritar jatorriko ikasleen parte-hartze handia hauteman da, bai eta eskolaz kanpoko jardueretan ere. Eskolaz kanpoko jarduera gehienak kirolarekin lotuta dauden arren, badaude hizkuntzak, aisialdia eta denbora libre, musika edo eskola-laguntzako eskolak ere, besteak beste. Zehazki, eskolaz kanpoko azken jarduera hori da neurri handienez A ereduko ikasleek aukeratzen dutena.
 3. Lehen Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasleek hautematen dute kultura-aniztasuna beren ikasgelan; hala ere, hautemate hori ez da hain nabaria itunpeko sareko ikastetxeetan ikasten dutenen artean.
 4. Beren burua ikasle ontzat dute eta irakasleek emandako lanekiko arduratsuak direla uste dute. Ez dute bereziki baztertzen irakasgai jakin bat. Hala ere, euskara, matematika eta ingurunearen ezagutza ikasleei gutxien gustatzen zaizkien irakasgaiak dira.
 5. Atzeritar jatorriko gurasoek ikastetxea etxebizitzatik hurbil egotea hartzen dute kontuan, ikastetxea aukeratzeko. Dena den, prezioa, kalitatea eta hezkuntza-eskaintza ere kontuan hartzen dituzte ikastetxe baten edo beste baten alde egiteko.
 6. Oro har, Lehen Hezkuntzako ikasleak ez dira ikastetxez aldatzen, eta halakoetan, urtean behin soilik egiten dute.
 7. Ikastetxerako, erreferentziazko pertsona oro har ama izaten da, eta familiek sarritan izaten dituzte harremanak ikastetxearekin.
-

Bigarren hezkuntzako eskola-esparrua

Bigarren Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasleen hezkuntzarekin lotutako gaiak sakon aztertuko ditugu. Kasu honetan, galde-sortak eskaintzen duen informazioa osoagoa da Lehen Hezkuntzako ikasleen artean aurkitu ahal izan duguna baino. Azken horretan, ikastetxeko giroa eta beren maila akademikoari dagozkion alderdiak aztertu ditugu.


52. grafikoan ikus daitekeen moduan, Bigarren Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasleen %91,5en ustez, hainbat leku, erlijio eta/edo kulturatako pertsonak egotea ona da, gauza berriak ikasten dituztelako. %8,5ek, berriz, uste du ona dela, baina zailtasun gehigarriren bat ere hauteman dute. Azkenik, inork ez du uste kaltegarria denik euskal kulturarako.

52. grafikoa Kultura-aniztasunari buruzko iritzia, %




24.G. Zer iruditzen zaizu euskal kulturari hainbat leku, erlijio eta/edo kulturatako pertsonak egotea?
Iturria: egileek egina

Kultura-aniztasunaren errealitatea Bigarren Hezkuntzako ikasleen ikasgeletara hurbiltzea positiboa dela uste du %83,2k. %16,8 tartean kokatzen da; ez du uste denik ez positiboa eta ez negatiboa. Azkenik, inork ez du uste negatiboa denik. Aurreko galderarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu biek kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa duten arren, harremanetarako eta ikasketarako guneak partekatzeke ideia ez dute hainbeste babesten gauza berriak ikasteko aukera ematen duen kultura-aniztasunaren onurei buruzko baieztapena adina. Modu berean, jarrera anibalentea zabalagoa da zuzenean eragiten dienean.

53. grafikoa Ikasgelako kultura-aniztasunari buruzko iritzia, %

25.G. Eta zure ikasgelari dagokionez, zer iruditzen zaizu hainbat leku, erlijio eta/edo kulturatako pertsonak ego?
Iturria: egileek egina

Bigarren Hezkuntzako ikasleen hautematearekin jarraituz, beren ikastetxea nola hautematen duten galdetuta, %69,4k esan du ez diola atentzioa ematen atzeritar jatorriko ikasleen bolumenak, normala iruditzen zaiola; %25,4k uste du atzeritar jatorriko pertsona gutxi daudela. Aitzitik, inkestatutako pertsonen %5,2k atzeritar jatorriko ikasleen gehiegizko presentzia hautematen du.

54. grafikoa Atzeritar jatorriko ikasleen presentziari buruzko hautematea, %


26.G. Zure ikastetxeari edo institutuari buruz pentsatuz gero, zer esango zenuke?
Iturria: egileek egina

Alde adierazgarriak erakusten dituzten gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, ikus dezakegu A ereduko ikasleen artean kanpoko pertsona gehiegi daudela uste duten pertsona gehiago daudela: hala dio %50,0k. Bestetik, asiar jatorriko ikasleen %25ek ere hori bera uste du. Latinoamerikar jatorriko pertsonen artean, berriz, %7,1ek soilik uste du kanpoko pertsona gehiegi daudela. Ikasketa-mailaren arabera, goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen artean ohikoagoa da kanpoko pertsona gehiegi daudela uste izatea (%16,5) ikasketarik ez duten edo soilik Lehen Hezkuntzako ikasketak dituzten gurasoen artean baino (%9,5).

Ikastetxeko indarkeriazko gertaera posibleei buruz hitz egitean, 55. grafikoan ikus dezakegu %60,5en ustez ez dagoela erasorik; eta erasoak izaten direla uste


dutenen artean, %23,8k uste du ikasleen artekoak izaten direla, eta %13,8k, ikasleen eta irakasleen artekoak. Alde adierazgarriak daude ikastetxe-motaren, hizkuntza-ereduaren, gurasoen jaiotza-herrialdeen, gurasoen ikasketa-mailaren, familia-motaren eta iritsi ziren garaiaren arabera. Beraz, ikastetxe publikoetan matrikulatutakoek indarkeria maila handiagoan hautematen dute (%44,9) itunpeko ikastetxeetan edo ikastetxe pribatuetan matrikulatutakoek baino. Bestetik, ikaskideen arteko indarkeria neurri handiagoan hautematen dute B ereduan matrikulatuta daudenek (%48,3) D ereduan matrikulatuta daudenek baino (%14,5). Ekialdeko Europako jatorria duten ikasleek neurri handiagoan hautematen dituzte ikasleen arteko indarkeriazko egoerak eta ikasleen eta irakasleen artekoak (hala dio %50,0k) beste jatorri batzuetako ikasleek baino. Halaber, ikasketarik ez duten edo soilik lehen mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben artean indarkeria-maila handiagoak hautematen dira (%50,0) beste ikasketa maila batzuek dituzten gurasoen seme-alaben artean baino. Familia mistoetako ikasleen artean, ikasleen arteko indarkeria neurri handiagoan hautematen da (%79,9) atzeritar jatorriko familietako ikasleen artean baino (%16,4). Azkenik, adierazi behar da 2008tik aurrera iritsi ziren ikasleen artean indarkeria gehiago hautematen dela (%64,9), data hori baino lehenago iritsi zirenetatik nabarmen bereiziz.

55. grafikoa Indarkeria ikastetxean, %



27.G. Hauteman al duzu inolako indarkeria-motarik zure ikastetxean, ikasleen artean edo ikasleen eta irakasleen artean?
Iturria: egileek egina

Bigarren Hezkuntzako ikasleen laurden batek baino gehiagok lehen pertsona bizi izan du indarkeria bere ikastetxean (%29,8). 56. taulan ikusten den moduan, ikasleen arteko indarkeria ez da kausa bakar baten ondorioa, eta hainbat izan daitezke erasoak eragiten dituzten gaiak (7. taula). “Desberdina izateagatik” motiboa guztizko aipamenen %45,8an agertzen da; ezaugarri fisikoak, %25ean; eta gustuak, %37,5ean. Azaldutako motibo batzuei buruzko aipamenak ere aurkitu ditugu; esate baterako, hitz egiteko modua (%20,8), nota hobeak ateratzea (%8,3) eta izaera (%8,3).

56. grafikoa Indarkeria lehen pertsonan bizitzea, %

28.G Indarkeria-motaren bat, irainak edo borrokak jasan al dituzu ikastetxean?


7. taula Indarkeriaren motiboak, %

Desberdina izateagatik	45,8
Nire gustuengatik	37,5
Nire ezaugarri fisikoengatik	25,0
Nire hitz egiteko moduagatik	20,8
Nire adineko mutilen arteko ohiko borrokak	12,5
Nota hobeak ateratzen ditu eta klasean adi egoten da	8,3
Izaera	8,3
Neska izateagatik	0,0

29.G. Motibo hauetako batengatik izan al da?
Iturria: egileek egina

Alde adierazgarriak dituzten gurutzeetako aldagaiei dagokienez, mutilek indarkeria handiagoa jasan dute (%47,4) neskek baino (%7,5). Bestetik, ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak soilik dituzten gurasoak dituzten ikasleen indarkeria gehiago jasan dute lehen pertsonan (%65,3) maila handiagoko ikasketak dituztenen seme-alabek baino. Motiboei erreparatuz, Bigarren Hezkuntzako edo lanbide-heziketako ikasketak dituzten atzerritar jatorriko gurasoen seme-alaben artean soilik ezaugarri fisikoetan dituzte alde adierazgarriak (%71,2) gainerako hezkuntza-mailekin alderatuta.

Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleei bezala, ea azken urtean 57. grafikoa azaltzen diren egoeretako bat edo beste bizi izan duten galdetu diegu. Zehazki, %22,3k dio norbait iraindu duela, eta %22,7k desberdina izateagatik egin duela. Eta hori da, hain zuzen, motibo nagusia. Ikastetxera ez joateko gezurra esatea %22,3 da, eta haiekin jolastu nahi ez izatea, %16,9. Indarkeria fisikoa %10,5 da, Lehen Hezkuntzako ikasleen arteko proportzioa baino txikiagoa.


57. grafikoa Ikasleek Bigarren Hezkuntzan bizi izandako egoerak, %

30.G. Azken urtean, gertatu al zaizu gauza hauetakoren bat?
Iturria: egileek egina

Zenbait motibotan alde adierazgarriak daude; zehazki, irainekin, jolas-denbora partekatzearekin eta gezurra esatearekin lotutakoak. Mutilek irain gehiago jasaten dituztela (%36,5) diote neskek baino (%4,3), eta Ekialdeko Europatik datozenek gezur gehiago esaten dute ikastetxera ez joateko (%50) gainerako lekuetatik etorritakoek baino. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek neurri handiagoan jasaten dituzte irainak, desberdinak izateagatik, D ereduan (%44,4) B ereduan baino (%9,2).


Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen %34,2k dio ikaskideak iraintzen, jotzen eta haiei gehiegikeriak egiten jarduten duten pertsonak daudela bere ikasgelan. Bestetik, gune horretan gerta daitezkeen gatazken maiztasuna oso txikia da; izan ere, %29,5ek dio ez duela gatazkarik izan ikasgelan, eta %31,1ek, ez duela ia inoiz izan. %18,3k uste du gatazken maiztasuna altua dela. B ereduko ikasleek neurri handiagoan uste dute batzuetan gatazkak egoten direla (%62,2) D ereduan matrikulatutakoek baino (%7).

58. grafikoa Ikasle gatazkatsuak, %



31.G. Zure ikasgelan ba al dago iraindu, jo, bultzatu, gauzak baimenik gabe hartu edo baztertzeko duen ikaslerik?


59. grafikoa Gatazken maiztasuna, %



32.G. Ohikoak al dira gatazkak zure ikasgelan?
Iturria: egileek egina


Bigarren Hezkuntzako ikasleek %60,9k uste du ikaskideekiko harremanak onak direla, eta %12,3k uste du oso onak direla. %9,6k uste du harremanak txarrak direla, eta %17,1ek, ez direla ez onak eta ez txarrak. Gurutzeetako aldagaiei erreparatu gero, alde adierazgarriak aurkituko ditugu ikasmailaren eta hizkuntza-ereduaren arabera. Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako atzerritar jatorriko ikasleek uste dute ikasgelako harremanak onak direla (%94,8), Bigarren Hezkuntzakoek baino neurri handiagoan (%41,6). Hori bera neurri handiagoan hautematen dute B ereduako ikasleek (%84,6) eta A ereduak (%50), D ereduarekin alderatuta (%33,5).

60. grafikoa Ikaskideekiko harremana ikasgelan, %




33.G. Nola deskribatuko zenuke ikasgelako ikaskideekiko harremana?
Iturria: egileek egina

Hala ere, irakasleekiko harremanaz galdetzean, 61. grafikoa ikus daiteke ez dela inoiz negatibo gisa baloratu, eta aukera neutrala hautatu duela %10,5ek. Gehienek ona dela uste dute (%68,8), eta %20,6k, oso ona dela. Bestetik, afrikar jatorriko ikasleek %43,3k oso ontzat baloratu du, asiarrak jatorriko (%50) eta latinoamerikar jatorriko (%7,1) familietatik nabarmen bereiziz.

61. grafikoa Irakasleekiko harremanen balorazioa, %

34.G. Nola deskribatuko zenuke irakasleekiko harremana?
Iturria: egileek egina

Bigarren Hezkuntzako ikasleen ia hiru laurdenek ikastetxeek proposatutako jarduera guztietan hartzen dute parte, eta %18,3, batzuetan. Parte-hartzerik eza oso urria da (%2,5) eta ikasleen %6,3k dio ez duela parte hartzen eskolaz kanpoko jardueren eskaintza faltarengatik (62. grafikoa).


62. grafikoa Eskolaz kanpoko jardueretako parte-hartzea, %

36.G. Hartzen al duzu parte eskolaz kanpoko jardueretan (ibilaldiak, bidaia, bisitak, festak...)?
Iturria: egileek egina

Aukeratzeari edo gutxienez eskolaz kanpoko jarduerak egiteko aukera izateari dagokionez, %72,1ek dio haietan parte hartzen duela, eta %27,9k, ez duela parte hartzen. Kirol-jarduerak dira ohikoenak (%73,6), eta ondoren, tarte handiarekin, eskola-laguntzakoak (%30,2) eta hizkuntzak (%28) daude. %4tik behera, musika-jarduerak daude (%3,5) eta ez dago aisialdiko eta denbora libreko jardueretan parte hartzen duen atzeritar jatorriko ikaslerik. Gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, ikus daiteke A ereduko ikasleek ez dutela parte hartzen eskolaz kanpoko jardueretan. B ereduan ikasten dutenak, berriz, gehiago dira nabarmen (%48,8). Bestetik, azken aldian, 2008tik 2013ra bitartean, iritsi zirenen artean, %69,4k ez du eskolaz


kanpoko jarduerarik egiten, eta kopuru hori 2008 baino lehenagoko aldietakoak baino handiagoa da. Musika-jarduerei dagokienez, ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alabek gehiago parte hartzen dute haietan (%17,1).

63. grafikoa Eskolaz kanpoko jarduerak, %



37.G. Hartzen al duzu parte eskolaz kanpoko jardueraren batean?


64. grafikoa Eskolaz kanpoko jarduera-motak, %



38.G. Zeinetan? Iturria: egileek egina

Ondoren, Bigarren Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasleen maila akademikoarekin lotutako galdera batzuk ditugu. Lehenik eta behin, ikasgelako ikasleen asebetetze-mailari ekingo diogu. 65. grafikoa ikus daitekeen moduan, hamarretik bederatzik dio nahiko gustura edo oso gustura dagoela ikasgelan. Inork ez dio pixka bat deseroso sentitzen denik ikasgelan. Eta, azkenik, %10,2k dio ez dagoela batere gustura. Azken talde horren kasuan, ikasgelako asegabetasunaren motiboak jakin nahi genituen. Ez da bakarria egonezina sortzen dien arazoa, zenbait arazo dira baizik. Besteak beste ikasgelan emandako gaiak, zenbait ikaskide, eta pertsona lotsagabeekin egotea.

65. grafikoa Ikasgelarekiko asebetetze-maila, %




39.G. Gustura al zaude zure ikasgelan? Iturria: egileek egina

Bestetik, ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasleak dituzten gurasoen seme-alaben %74,8 nahiko gustura dago ikasgelan, maila handiagoko ikasketak dituztenen seme-alabak ez bezala.

Akademikoki hitz eginez, beren eskola-errendimenduari buruzko hautematea zerotik hamarrera arteko eskalan baloratzeko eskatu diegu, zero “oso gaizki” eta hamar “primeran” izanik. 66. grafikoa ikus daitekeen moduan, batez besteko puntuazioa 7,43 puntu dira, hamarren gainean. Beraz, ikastetxeko errendimenduari buruzko erlazioa positiboki baloratzen da.


66. grafikoa Eskola-errendimenduaren autopertzepzioa, batez besteko balioak



41.G. 0tik 10era arteko eskalan, 0 “oso gaizki” eta 10 “primeran” izanik, nola esango zenuke zabiltzala ikasgelan?
Iturria: egileek egina

Bigarren Hezkuntzako atzerriar jatorriko ikasleak euskara irakasgaietan moldatzen dira okarren: %64,7ren ustez okerrena da. Jatorri autoktonoko ikasleen kasuko kopurua (%22,6) baino askoz ere handiagoa da. Bigarrenik, atzerriar jatorriko ikasleen %41,3k dio gaizki dabilela matematikan. Horretan, jatorri autoktonoko ikasleen kopurua ere (%38,7) antzekoa da. Bestetik, atzerriko hizkuntzetan okerrago moldatzen dira jatorri autoktonoko ikasleak (%45,2) atzerriar jatorrikoak baino (%25,7).

67. grafikoa Balorazio baxueneko irakasgaiak, %




42.G. Zein irakasgaitan moldatzen zara okarren? Eta zeinetan ondoen?
Iturria: egileek egina

Alde adierazgarriak dituzten aldagaiei erreparatuz, ikusten dugu matematika irakasgaiaren kasuan, gehiago direla ondo moldatzen direla dioten B ereduko ikasleak (%94,8) gainerako ereduak baino. Bestetik, ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben %7k soilik dio gaizki

moldatzen dela irakasgai horretan. Ez da hala gertatzen bigarren mailako eta lanbide-heziketako ikasketak dituztenen (%45,4) eta goi-mailako ikasketak dituztenen (%57,6) seme-alaben kasuan.


Inkestatutako Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen artean, %19,7k dio gutxienez behin errepikatu duela mailaren bat. Eta, maila errepikatzeko aukerari dagokionez (69. grafikoa), %5,5ek uste du hala izango dela, eta gehienek (%76,4) ez dute ukatzen gerta daitekeenik. Gainera, %18k ez du batere argi erantzuna. Sexuaren arabera, aldeak nabarmenak dira hurrengo urtean maila errepikatu beharko duten ez dakiten mutilen artean (%32,2) eta nesken artean, non inork ez duen zalantzan jartzen.

68. grafikoa Maila noizbait errepikatu dute, %



43.G. Noizbait errepikatu al duzu maila?


69. grafikoa Maila errepikatzeko aukera, %



44.G. Zure ustez, errepikatu al dezakezu?
Iturria: egileek egina


Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen %63,5ek uste du eskola-laguntza behar duela irakasgairi batean. Horietatik, ia erdiek diote ikastetxeak edo institutuak laguntza eskaini dietela (70. grafikoa), eta %46,8k, ez zuela horrelakorik izan. Familiak emandako laguntza pixka bat handiagoa da (71. grafikoa); izan ere, eskola-laguntza behar dutela dioten %57k dio gurasoen laguntza izaten duela. Familiak eskaintzen duen laguntza klase partikularrak jasotzea izaten da kasu batzuetan. Eskola-laguntza behar dutela dioten artean, laguntza izateko aukera gurasoek eman dieten gehienei (%51,4).

70. grafikoa Ikastetxeak emandako laguntza, %



46.G. Eskaini al dizute laguntza zure ikastetxean/institutuan?


71. grafikoa Familiak emandako laguntza, %



47.G. Eskaini al dizute laguntza gurasoek/tutoreek?
Iturria: egileek egina

Azkenik, eta 72. grafikoa ikusten den moduan, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek ez dute eskolara huts egiten dutenik esan; izan ere, %67,2k dio ez duela inoiz huts egiten eskolan, eta %32,8k, soilik noizean behin huts egiten duela.

72. grafikoa Eskolara huts egitearen maiztasuna, %




49.G. Zenbatean behin huts egiten duzu klasean?
Iturria: egileek egina

Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleekin egin dugun moduan, beren seme-alaben ikastetxeekin lotutako gaiei buruzko gurasoen iritziak aztertuko ditugu. Esate baterako, ikastetxearen aukeraketa, zenbat denbora daramaten bertan matrikulatuta, eta zer harreman ezartzen diren familien eta ikastetxeen artean. Aztertu beharreko lehen kasuan, gure galderei erantzun dieten gurasoei beren seme-alaben ikastetxea aukeratzeko hiru motibo adierazteko eskatu diegu, garrantziaren arabera ordenan. 73. grafikoa ikus dezakegun moduan, itxita dagoen galde-sorta baten lehen aipamena eta guztizko aipamenak daude adierazita.

Hurbiltasuna da atzerritar jatorriko familiek gehien kontuan hartzen duten alderdia, ikastetxea aukeratzeko. Izan ere, lehen aipamen gisa agertzen da (%43), bai eta guztizko aipamenetan ere (%68,4). Hezkuntza-eskaintza eta kalitatea bigarren (%63) eta hirugarren (%55,6) alderdiak dira, Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen kasuan ikusi ditugun kopuruen hirukoitza eta bikoitza, hurrenez hurren. Beraz, hurbiltasunak familientzat garrantzitsua izaten jarraitzen duen arren, Bigarren Hezkuntzako ikasleen kasuan, Lehen Hezkuntzako kasuan baino pixka bat txikiagoa da. Horren ordainetan, ikastetxeen kalitatearen eta hezkuntza-eskaintzaren garrantzia handitu egin da. Prezioa, Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan bigarren alderdi garrantzitsuena zena, %14,8k soilik aipatu du kasu honetan, ikastetxeko aniztasunari buruzko kopuruaren antzekoa (%19). Azkenik, ikastetxea aukeratzeko ez dutenen kopurua handiagoa da Bigarren Hezkuntzako familien artean (%8,8) Lehen Hezkuntzako familien artean baino (%3,1).

73. grafikoa Ikastetxea aukeratzeko. Lehen aipamena eta guztizkoak, % (Iradokitako erantzuna)




65.G. Zergatik aukeratu zenuen ikastetxe hau zure seme-alabak matrikulatzeko?
Iturria: egileek egin

Alde adierazgarriak erakusten dituzten gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, D ereduko ikasleen familietan ikastetxea aukeratzeko erabakian parte hartzen ez duten pertsona gehiago daude (%20,2) seme-alabak beste eredu batzuetan matrikulatuta dituzten familietan baino; eta gauza bera gertatzen da ikasketarik gabeko edo lehen mailakok ikasketak dituzten gurasoen artean (%29,3) ere, parte-hartze txikiagoa izan baitute beste hezkuntza-maila batzuekin alderatuta. Bestetik, afrikar jatorriko familiek kalitatea ez dute hainbeste kontuan hartzen ikastetxea aukeratzeko (%25,7), gainerako atzerritar jatorriekiko bereiziz. Ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten gurasoek ere gutxiago hartzen dute kontuan kalitatea (%16,7), bigarren mailako ikasketak eta lanbide-heziketako ikasketak dituzten gurasoekin (%64,2) eta goi-mailako ikasketak dituztenekin (%68,3) alderatuta.

Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen artean, ikastetxez aldatzea gutxitan gertatzen da, oro har, 74. grafikoa ikus dezakegun moduan. %91,8k


ez ditu seme-alabak ikastetxez aldatu azken urtean, eta portzentaje hori Lehen Hezkuntzako ikasleen portzentajearen ia berdina da. Seme-alabak ikastetxez aldatu dituztenek, normalean behin aldatu dituzte (%77,2). Hala ere, %22,8k aldaketa bat baino gehiago egin du, eta kopuru hori Lehen Hezkuntzako ikasleena baino handiagoa da.

74. grafikoa Ikastetxez aldatzea, %



67.G. Zure seme-alaba ikastetxez aldatu al duzu azken urtean?


75. grafikoa Ikastetxe-aldaketen kopurua, %



68.G. Zenbat aldiz aldatu duzu ikastetxez zure seme-alaba?
Iturria: egileek egin

Ikastetxerako erreferentziazko pertsonari dagokionez, kasu gehienetan ama izaten da. Hala ere, badaude aldeak familia autoktonoen eta atzerritar jatorriko familien artean, azken horietan aitaren presentzia txikiagoa baita. Familia autoktonoen kasuan, %90,3an erreferentziazko pertsona, %41,9an aita ere bada.

76. grafikoa Ikastetxerako erreferentziazko pertsona, %




69.G. Nor da ikastetxerako erreferentziazko pertsona?
Iturria: egileek egin

Ikastetxearekin ezartzen diren harremanei buruz ari garela, harremanen intentsitatea altua dela uste dute atzerritar jatorriko gurasoek; izan ere, 77. grafikoan ikus daitekeen moduan, %41,5ek uste du nahiko harreman dagoela, eta %25,4k, harreman handia dagoela. Aurrakako polon, %25,4k dio harreman gutxi duela ikastetxearekin. Lehen Hezkuntzako ikasleen familiekin alderatuta, badirudi


ikastetxearekiko harremana urriagoa dela. Motibo nagusia beharrezkoa ez dela uste izatea da, Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko familiek adierazitako antzeko proportzioetan (78. grafikoa).

77. grafikoa Ikastetxearekiko harremana, %



70.G. Nola deskribatuko zenuke ikastetxearekiko harremana?

78. grafikoa Ikastetxearekiko harremanik ezaren motiboak, %



71.G. Eta, zure ustez, zergatik dago harreman gutxi edo batere ez?
Iturria: egileek egin

Hizkuntza-ereduan, gurasoen ikasketa-mailan eta familia-motan alde adierazgarriak hauteman ditugu. B ereduan ikasten duten ikasleen artean, familien %6,9k soilik dio ikastetxearekin harreman handia duela. Kopuru hori D ereduan ikasten duten ikasleen familien kopurua (%37,4) baino nabarmen txikiagoa da. Aitzitik, ikastetxearekiko harreman gutxi izatea ohikoagoa da ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten (%62,6) gurasoen artean, goi-mailako ikasketak (%42,2) eta bigarren mailako ikasketak eta lanbide-heziketakoak (%20,2) dituztenen artean baino. Azkenik, hamar familia mistotik zortzik diote harreman gutxi dutela ikastetxearekin (%79,9), bi gurasoak atzerritar jatorrikoak dituzten familietan (%27,4) kasuan ez bezala.

Laburbilduz

1. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek jarrera tolerantia dute kultura-aniztasunarekiko; hala ere, jarrera anibalenteagoa bihurtzen da egoerak zuzenean eragiten badie. Ez dute hautematen beren ikastetxean etorkinen presentzia gehiegizkoa denik, baina probableagoa izaten da hori gertatzea A ereduaren ikasten dutenen artean eta goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen familietan.
2. Oro har, ez dute indarkeriazko gertaerarik hautematen ikastetxean, eta hori gertatzen bada, hamarretik bik esaten dute ikasleen artean ikusi izan dutela. Bigarren Hezkuntzako ikasleen laurden batek baino gehiagok indarkeria-motaren bat bizi izan duela dio, eta gehien agertzen diren motiboak desberdina izatea, ezaugarri fisikoak eta gustuak izaten dira. Indarkeria mutilen artean gertatzen da gehiago, eta ikasketarik gabeko edo soilik lehen mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben artean.
3. Ikastetxeetan izan daitezkeen egoera gatazkatsu edo negatibo potentzialen artean, iraina da ohikoena; ondoren, ikastetxera ez joateko esaten diren gezurrak eta haiekin jolastu nahi ez izatea daude. Mutilek irain gehiago jasaten dituztela diote neskek baino.
4. Gatazkak ez dira ohikoak ikasgelan, eta beren ikasgelan pertsona gatazkatsurik ez dagoela uste duten atzerritar jatorriko ikasleak ugariagoak dira aurkakoa uste dutenak baino. Ikaskideekiko harremanak onak dira, eta irakasleekiko harremanak, are hobekiak.
5. Bigarren Hezkuntzako ikasleen hiru laurdenek ikastetxeak proposatutako jardueretan parte hartzen dute, eta ikastetxetik kanpo bere kabuz egiten dutenen proportzioa ere antzekoa da. A ereduko ikasleek beste hizkuntza-ereduetan matrikulatutako ikasleek baino gutxiago hartzen dute parte. Kirol-jarduerak dira ohikoena; eta ondoren, eskola-laguntza eta hizkuntzak.
6. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko hamar ikasletik bederatzi oso gustura sentitzen da ikasgelan. Gustura ez daudenek zenbait arrazoi eman dituzte; besteak beste, ikaskide batzuk, lotsagabeak izatera irits daitezkeelako, eta ikasi beharreko irakasgaiak.
7. Beren eskola-errendimenduari oso ongi balorazioa jarri diote. Okerren euskara eta matematika irakasgaietan moldatzen direla uste dute. Euskal jatorriko ikasleen kasuan, atzerriko hizkuntzetan atzerritar jatorriko ikasleak baino okerrago moldatzen direla uste dute.
8. Oro har, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleak ez du maila errepikatu; baina, hala ere, etorkizunean hori gerta daitekeenari buruzko

zalanza pixka bat handitu da. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen erdiek baino pixka bat gehiagok uste dute eskola-laguntza behar dutela irakasgaireren batean, eta familian laguntza gehiago hautematen du ikastetxean baino. Azkenik, eskolara huts egitea ez dago orokortuta, ezta gutxiago ere.

9. Atzerritar jatorriko familiek ikastetxearen hurbiltasuna, kalitatea eta hezkuntza-eskaintza hartzen dituzte kontuan, ikastetxea aukeratzeko orduan. Azken bi aukera horiek askoz ere garrantzitsuagoak dira Bigarren Hezkuntzako gurasoentzat Lehen Hezkuntzako gurasoentzat baino. Ikasketarik gabeko edo soilik lehen mailako ikasketak dituzten gurasoen artean ohikoagoa da ikastetxeari buruzko erabakitze-falta.
 10. Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan bezala, ez da ohikoa seme-alabak ikastetxez aldatzea, eta aldatzen duenak behin aldatzen du normalean.
 11. Ikastetxerako familiako erreferentzia den pertsona ama izaten da, baina familia autoktonoetan aitaren presentzia handiagoa da atzerritar jatorriko familietan baino. Bestetik, azken horiek diote nahiko harreman dutela ikastetxearekin. Maiztasun hori Lehen Hezkuntzako ikasleen familia baina pixka bat txikiagoa da. Ikastetxearekin harremanik izaten ez dutenek ez dute beharrik sentitzen. Portaera hori ohikoagoa da ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten gurasoen artean.
-

3

Familia-esparrua

Lehen hezkuntzako familia-esparrua

Atal honetan, familiaren egoerari eta giroari buruzko datuak aztertzen ditugu, bai eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako hurrei familiak ematen dien eskola-laguntza ere. Lehenik eta behin, ikaslea zer familia-baldintzetan bizi den jakiteko, etxean zenbat pertsona bizi diren galdetu diogu. 8. taulan ikus daitekeen moduan, jatorri autoktonoko ikasleen kasuan, lau pertsonako etxeen portzentajea ia bi aldiz handiagoa da atzerritar jatorriko pertsonen etxeetakoa baino (%71,0 eta %38,5, hurrenez hurren). Bost pertsonako etxeei dagokienez, egoera alderantzizkoa da; proportzioa handiagoa da atzerritar jatorriko pertsonen artean (%26,4) euskal jatorriko pertsonen artean baino (%5,8). Azkenik, bost pertsona baino gehiagoko etxeetan, familien %4,3 jatorri autoktonokoa da, eta familien %11,5, atzerritar jatorrikoa. Beraz, atzerritar jatorriko familien etxeetan pertsona gehiago bizi dira jatorri autoktonoko familien etxeetan baino.

8. taula Etxeko pertsona-kopurua jatorriaren arabera, % bertikalak

	BERTAKOA	ATZERRITARRA
2	0	4,6
3	18,8	18,1
4	71	38,5
5	5,8	26,4
5 baino gehiago	4,3	11,5


1.G. Normalean, zenbat pertsona bizi dira zure etxean?
Iturria: egileek egina

Jatorriko gunearen arabera, afrikar jatorriko familien artean lau pertsonako etxe gutxiago daude (%27,1), eta bost pertsonako etxe gehiago (%45,7).

Etxean bizi diren pertsonen dagokionez, Lehen Hezkuntzako ikasle gehienak, atzeritar jatorrikoak eta autoktonoak, bi gurasoekin bizi dira, portzentaje hori handiagoa da jatorri autoktonoko familien kasuan (%94,2; eta atzeritar jatorriko familien artean, %81,9). Bestetik, guraso bakarreko familiak ugariagoak dira atzeritar jatorriko pertsonen artean (%14,9) jatorri autoktonokoaren artean baino (%2,9). Azkenik, atzeritar jatorriko pertsonen heren bat inguruk dio aita eta ama ez diren beste pertsona batzuekin bizi direla (%33,1).


Anai-arreben kopuruari dagokionez, ikus daiteke atzeritar jatorriko familietan seme-alaben kopurua handiagoa dela, eta erantzun zutenen tasa handiagoa izan zen (%21,6) familia autoktonoko familietan baino (%4,3). Aldi berean, jatorri autoktonoko familien artean ohikoagoa da seme-alaba bat izatea (%71) atzeritar jatorriko familietan baino (%51).

79. grafikoa Etxeko kideak, familiako jatorriaren arabera, %



2.G. Zure familiako norekin bizi zara?
(norekin bizi den normalean)

80. grafikoa Anai-arreba kopurua, familiako jatorriaren arabera, %



3.G. Ba al duzu zurekin bizi den anai-arrebarik?
Iturria: egileek egina


Familia horien osaera jatorriko gunearen arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu guraso bakarreko familien eragina askoz ere txikiagoa dela afrikar jatorrikoen artean (%8,6) eta altuena dela latinoamerikar jatorriko familien kasuan (%18,7).

Gainera, afrikar jatorriko familiek beste jatorri batzuetako familiek baino seme-alaba gehiago dituzte, familien %51,4k hiru seme-alaba edo gehiago izaten dituztelako.

Lehen Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasleen familia-giroa baloratzeko asmoz, bizi diren pertsonekin zer-nolako harremana duten galdetu diegu. 81. grafikoa ikus daiteke atzeritar jatorriko ikasleen gehiengo osoak dioela familiarekin harreman onak dituela; hamarretik bederatzik. Hala ere, %7,8k dio harremana ez dela ez ona ez txarra. Familia-jatorriari dagokionez, inkestatutako jatorri autoktonoko eta atzeritar

jatorriko pertsonen artean alde nabarmenik ez dagoen arren, azken kolektibo horretan aldeak hauteman dira familia-jatorriaren arabera. Hala, latinoamerikar jatorriko eta afrikar jatorriko ikasleak dira familia arteko harremanetan asebetetze-maila handiena adierazi dutenak. Asiar jatorriko pertsonen kasuan, berriz, bizi diren pertsonekin ongi moldatzen direla dioten pertsonen tasarik baxuena erregistratu da (%66,7) eta harreman horiek txartzat jotzen dituztenen portzentajerik altuena (%16,7).


81. grafikoa Bizi diren pertsonetako harremanak, familia-jatorriaren arabera, %



4.G. Nola moldatzen zara bizi zaren pertsonekin?
Iturria: egileek egina

Ondoren, etxeko egoera ekonomikoa baloratzeko eskatu diegu, etxean behar duten guztia baduten edo ez galdetuz. 82. grafikoa ikus daitekeen moduan, oro har, Lehen Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasleek uste dute behar duten guztia dutela etxean (%76,7). Familia-jatorriari erreparaturaz, portzentaje hori familia autoktonoen kasuan pixka bat handiagoa dela (%88,9) ikusten da, eta asiar jatorriko pertsonen artean arazo ekonomikoak dituztela dioten tasa (%50) da altuena, eta bigarren altuena, afrikar jatorriko pertsonena (%24,4).

82. grafikoa Etxeko egoera ekonomikoa, familia-jatorriaren arabera, %




5.G. Behar duzuen guztia al duzue etxean?
Iturria: egileek egina

Azkenik, eskolako lanak etxean egitean izaten duten laguntza hartuko dugu kontuan, bai eta gurasoek eskola-jardueraren segimendua egiteko zer interes duten ere.

83. grafikoan ikus daitekeen moduan, kasu gehienetan gurasoak dira etxeko lanak egiten laguntzen dietenak (guztizkoaren %72,2), eta portzentaje hori pixka bat handiagoa da familia autoktonoetan (%85,5).

83. grafikoa Etxeko lanetako laguntza, atzeritar jatorria, %




6.G. Nork laguntzen dizu normalean etxeko lanak egiten?
Iturria: egileek egina

Ikasleen familia-jatorriaren eremuari erreparatuz, Asiatik edo Afrikatik etorritako familien artean ohikoagoa da senideek ematea laguntzat (%16,7 eta %11,4, hurrenez hurren), eta inork laguntzen ez diela diotenentzako tasak %33,3 eta %21,5 dira, hurrenez hurren. Hizkuntza-ereduari erreparatuz, A ereduan ohikoagoa da atzeritar jatorriko familietan beste senide batzuek ikasleei laguntzea (%34) B ereduan (%2,7) eta D ereduan (%7,4) baino.

Hurrengo grafikoan, atzeritar jatorriko ikasleekin bizi diren pertsonen eskola-esparruko alderdiei buruz izaten duten interesari buruzko datuak aurkezten dira. Horren haritik, kasu gehienetan, ikasleek diote haiekin bizi diren pertsonen interesa izaten dutela eskolako-bilerei eta eskolako etxeko lanei buruz, bai eta ikastetxean gertatutakoari, notei, azterketei eta ikasgelara joateari buruz ere.

84. grafikoa Ikasleekin bizi diren pertsonen eskola-esparruko alderdiei buruz duten interesa, atzerritar jatorria, %



7.G. Egin al dizute zurekin bizi diren pertsonen alderdi hauei buruzko galderarik?
Iturria: egileek egin

Hala ere, aldagai soziodemografikoen arabera, ez da alde adierazgarririk hauteman, bi kasu hauetan izan ezik: ikasgelara joatea hizkuntza-ereduaren arabera eta eskolako bilerak ikastetxe-motaren arabera. Hala, ikasleekin bizi diren pertsonen ea ikasgelara joaten diren ez dietela galdetzen erantzun dutenen tasa altuena A ereduko ikasleei dagokie (%33,1). Ikastetxe pribatuetan, aldi berean, ikasleei eskolako bilerekin galdetzen ez duten atzerritar jatorriko gurasoen portzentajea handiagoa da ikastetxe pribatuetan matrikulatutakoen kasuan (%23,4) ikastetxe publikoetan matrikulatutakoen kasuan baino (%8,1).

Laburbilduz


1. Atzerritar jatorriko pertsonen etxeetan, jatorri autoktonoko pertsonen etxeetan baino pertsona gehiago bizi dira batez beste. Era berean, atzerritar jatorriko familien ezaugarriak dira guraso bakarreko etxeak gehiago izatea, bai eta seme-alaba gehiago izatea ere. Bestetik, Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek diote giro ona dutela etxean; eta alderdi horretan, ez dago alde adierazgarririk jatorriaren edo beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera. Hautemandako etxeko egoera ekonomikoa hobea da jatorri autoktonoko ikasleen artean atzerritar jatorriko ikasleen artean baino.
 2. Etxeko lanak egiten laguntzen dieten pertsonen dagokionez, gurasoak dira gehien aipatutako aukera. Familia-jatorriaren arabera, afrikar eta asiar jatorriko ikasleen artean da handiena inoren laguntzarik ez duten pertsonen tasa. Oro har, Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek diote haiekin bizi diren pertsonen interes handia erakusten dutela beren eskola-jarduerari dagokionez.
-

Familia-esparrua: bigarren hezkuntza

Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleei Lehen Hezkuntzakoei egindako galdera berak egin dizkiegu. Lehenik eta behin, etxean bizi den pertsona-kopuruari, anai-arreba kopuruari eta etxeko osaerari buruzko datu orokorrak aurkezten ditugu.

85. grafikoan ikus daitekeen moduan, kasuen erdiak lau pertsonako etxeak dira, eta etxeen ia %20 bost pertsonakoak dira, eta ez dago alde adierazgarririk jatorriaren arabera.


85. grafikoa Etxeko pertsona-kopurua, atzerritar jatorria, %



1.G. Zenbat pertsona bizi dira zure etxean?
Iturria: egileek egina

Etxeko osaerari dagokionez, 86. grafikoak erakusten du ikasle gehienak bi gurasoekin bizi diren arren, egoera hori ohikoagoa dela familia autoktonoetan (%90,3) atzerritar jatorriko familietan baino (%66,1); azken kasu horretan, guraso bakarreko familien portzentajea handiagoa da (%25,7) familia autoktonoetan baino (%6,5).


86. grafikoa Etxeko osaera, atzerritar jatorria, %



2.G. Zure familiako norekin bizi zara? (norekin bizi den normalean)
Iturria: egileek egina


Anai-arrebarik baduten galdetuta, eta hala bada, zenbat dituzten galdetuta, gehienek (%77,7) baietz erantzun dute, eta ez dago alde handirik jatorriaren arabera. Anai-arreben kopuruari dagokionez, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen erdiek baino pixka bat gutxiagok anai-arreba bat dute (%43,9), heren batek bi dituzte, %20,7k hiru, eta %2,4k bost.

87. grafikoa Anai-arrebarik baduten, jatorriaren arabera, %



3.G. Ba al duzu zurekin bizi den anai-arrebarik?

88. grafikoa Anai-arreben kopurua, jatorriaren arabera, %




4.G. Zenbat anai-arreba? Iturria: egileek egina

Familia-jatorriaren arabera, ikus daiteke atzerritar jatorriko ikasleen gurasoen artean ez dela hain ohikoa bi seme-alaba izatea (%43,9) jatorri autoktonoko gurasoen kasuan baino (%73,9). Aldiz, hiru seme-alaba edo gehiago dituztenen ehunekoa nabarmen handiagoa da atzerritar jatorriko familien artean (%23,1).


Ikastetxe-motaren arabera, ikastetxe publikoetan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleek anai-arreba gehiago dituzte (%41,4) ikastetxe pribatuak ikasleek baino (%0).

Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan bezala, Bigarren Hezkuntzako ikasleen familia-giroaz interesatu gara. 89. grafikoa ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko hamar ikasletik seik diote oso harreman onak dituztela haiekin bizi diren pertsonekin (%64,6), eta beste %34,5ek familiakoen arteko harremana ona dela. Nabarmenezkoa da harremana ez dutela txartzat edo oso txartzat jo kasu bakar batean ere.

89. grafikoa Familiakoen arteko harremanak, atzeritar jatorria, %

5.G. Zer harreman duzu bizi zaren pertsonekin?
Iturria: egileek egina

Eskolako etxeko lanetako laguntzari dagokionez, atzeritar jatorriko ikasleen %39,3ri gurasoek edo tutoreek laguntzen dio; kasuen %37an, ez dute inolako laguntzarik; eta %24ri beste pertsona batzuek laguntzen diote. Jatorriaren arabera, ikus daiteke gurasoen eta anai-arreben laguntza ohikoagoa dela jatorri autoktonoko ikasleen artean (%51,6, gainerakoena %39,3 izanik; eta %16,1, gainerakoena %1,9 izanik). Aldiz, eskolako etxeko lanak egiteko inolako laguntzarik jasotzen ez duten atzeritar jatorriko ikasleak gehiago dira (%37,8).

90. grafikoa Etxeko lanetan laguntzen dieten pertsonak, familia-jatorriaren arabera, %


6.G. Nork laguntzen dizu etxeko lanak egiten?
Iturria: egileek egina

Jatorriaren eremuaren arabera, gurasoek edo tutoreek gutxiago laguntzen diete afrikar jatorriko ikasleei (%9,7), eta, gainera, etxean inolako laguntzarik ez dutenen tasa altuena (%72,6) ere haiei dagokie.

Azkenik, ikasketa-mailaren arabera, goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben kasuan, etxeko lanak egiteko gurasoen laguntza izaten dutenen ehunekoa altuagoa da erdi-mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik gabeko gurasoen kasuan baino.

91. grafikoan, etxeko lanak egitean izaten duten laguntzaren maiztasunari buruzko datuak ikus daitezke. Atzerritar jatorriko ikasle gehienei dezentetan (%67,1) edo beti (%22,7) laguntzen zaie, eta %4,9ri, gutxitan. Familia-jatorriaren arabera, jatorri autoktonoko ikasleek laguntza gutxiago izaten dute etxeko lanak egitean atzerritar jatorrikoek baino (%26,1ek gutxitan izaten du laguntza).

91. grafikoa Etxeko lanak egiteko laguntzaren maiztasuna, jatorriaren arabera, %




7.G. Zenbat laguntzen dizute etxeko lanak egiten?
Iturria: egileek egin

Ikasketa-mailaren arabera, lehen mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik ez duten gurasoen artean da altuena seme-alabei inoiz laguntzen ez dien gurasoen tasa (%26,6).

Seme-alaben eskola-bizitzako zenbait alderdiri buruz gurasoek duten interesari dagokionez, atzerritar jatorriko kasik pertsona guztiek diote ikastetxean zer gertatu den eta hurrengo egunerako etxeko lanei buruz galdetzen dietela, bai eta notei, eskolako bilerei eta klasera joateari buruz ere. Ez dago alde adierazgarririk aldagai soziodemografikoen arabera.


92. grafikoa Ikasleekin bizi diren pertsonen eskola-esparruko alderdiei buruz duten interesa, atzeritar jatorria, %



8.G.a,b,c,d,e. Ba al dute interesik zure gurasoek edo tutoreek alderdi hauei buruz?
Iturria: egileek egina

Azkenik, etxeko egoera ekonomikoa baloratzeko eskatu diegu Bigarren Hezkuntzako ikasleei. 93. grafikoa ikus daitekeen moduan, atzeritar jatorriko hamar ikasletik seik diotenez, egoerak bizitzeko adina ematen die (%62,8), %23,9k dio eroso bizi direla, eta %13,3ren ustez, zailtasunak dituzte bizitzeko.

93. grafikoa Etxeko egoera ekonomikoa, jatorriaren arabera, %



9.G. Zure ustez, nolakoa da etxeko egoera ekonomikoa?
Iturria: egileek egina

Jatorriaren arabera, alde adierazgarriak daude. Atzeritar jatorriko familiek zailtasun handiagoak dituzte bizitzeko (%13,3) jatorri autoktonoko familiek baino (%0). Aldi berean, eroso bizi direla dioten tasa handiagoa da jatorri autoktonoko ikasleen artean (%64,5) atzeritar jatorriko ikasleen artean baino (%23,9).

Hurrengo taulan, ikastetxe-motaren arabera erantzunen banaketa ikus daiteke. Hala, atzeritar jatorriko ikasleen artean eroso bizi diren pertsonen tasa handiagoa da itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan (%36,8) ikastetxe publikoetan baino (%12,5). Aldi berean, zailtasun handiagoak dituzte bizitzeko seme-alaba ikastetxe publiko baten duten familiek (%25,1) itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan dutenek baino. Azken horietan, ez dago bizitzeko zailtasunak dituztela dioen pertsonarik.

Ikasketa-mailaren arabera, goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alabek zailtasun ekonomiko gutxiago dituzte lehen eta bigarren mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik ez duten gurasoen seme-alabek baino.

9. taula Etxeko egoera ekonomikoa, atzeritar jatorria, ikastetxe-motaren arabera, % bertikalak

	PUBLIKOA	ITUNPEKOA PRIBATUA
Eroso bizi zarete	12,5	36,8
Bizitzeko adina baduzue	62,4	63,2
Zailtasunak dituzue bizitzeko	25,1	0

*9.G. Zure ustez, nolakoa da etxeko egoera ekonomikoa?
Iturria: egileek egina*

Azkenik, familia-jatorriaren eremuaren arabera, etxean egoera ekonomiko erosoak dutela dioten pertsonen proportzioa handiagoa da latinoamerikar jatorriko ikasleen artean (%35,7); afrikar jatorriko ikasleen kasuan, datu hori baxuena da, soilik %17,7koa.

Laburbilduz

1. Lehen Hezkuntzaren kasuan bezala, etxean bizi diren pertsonen batez besteko kopurua handiagoa da atzerritar jatorriko ikasleen artean jatorri autoktonoko pertsonen artean baino. Gainera, atzerritar jatorriko familia gutxiagotan bizi dira ikasleak bi gurasoekin, eta guraso bakarreko familia gehiago daude, edo guraso bakartzat ama duten familiak. Etxeko giroari dagokionez, atzerritar jatorriko ikasle gehienek ustez ona da.
 2. Inoren laguntzarik ez dutela dioten ikasleen tasa Lehen Hezkuntzako baino handiagoa da, eta jatorri autoktonoko pertsonen tasa, berriz, txikiagoa da. Gainera, lehen mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik ez duten gurasoen familietan, ohikoagoa da seme-alabek ez izatea laguntzarik etxeko lanak egiteko. Ikaslearekin bizi diren pertsonen eskola-alderdietan duten interesa altua da, eta ez dago alderik aldagai soziodemografiko bakar batean ere.
 3. Etxeko egoera ekonomikoari dagokionez, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen ustez ona da. Itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan eroso bizi direla dioten familia gehiago daude ikastetxe publikoetan baino. Atzerritar jatorriko ikasleen artean, zailtasun ekonomikoak dituztela dioten pertsona gehiago daude; batik bat, afrikar jatorriko familietan.
-

4


Identitatea

Identitatea eta integrazioa: lehen hezkuntza

Atal honetan, ikasleen eta haien gurasoen identitatearekin lotutako alderdiak aztertzen dira. Lehen Hezkuntzaren kasuan, adin txikiagoko neska-mutilak direnez, soilik identifikazioari eta euskal gizarteko gainerako pertsonetikiko desberdin sentitzeari buruzko galderak egin zaizkie. Bigarren Hezkuntzako gurasoen eta ikasleen kasuan, berriz, kultura- eta erlijio-identifikazioari, identitateari eusteko garrantziari eta jatorriko gizarteko tradizioei buruzko galderak egin zaizkie.

Atzeritar jatorriko neska-mutilen kasuan, inkestatutako hamar pertsonatik hiru euskaldun gisa identifikatu dira, %28,5ek espainiartzat du bere burua, %19,5ek jaiotza-herrialdearekin identifikatzen du bere burua, eta inkestatutako pertsonen %16,1ek gurasoen jatorriko herrialdearekin identifikatzen du bere burua. Beraz, ondoriozta dezakegu gehienek harrera-herrialdearekin identifikatzen dutela beren burua, eta %36,6k, jatorrizko herrialdearekin edo gurasoen herrialdearekin.

Familia-jatorriaren arabera, aldeak daude, espero zitekeen moduan. Euskaldun gisa identifikatzen diren euskal jatorriko pertsonen portzentajea atzeritar jatorriko pertsonen bikoitza da (%60,9).

94. grafikoa Nazio-identifikazioa, jatorriaren arabera, %


8.G. Nongoa zaren galdetzen badizute, zer erantzungo zenuke?
Iturria: egileek egina

Familia-jatorriaren eremuaren arabera, atzerritar jatorriko ikasleen artean norbera jaio den herrialdearekin edo gurasoak jaio diren herrialdearekin identifikatzea ohikoagoa da asiar jatorriko (%33,3k bere burua gurasoen jaiotza-herrialdearekin identifikatzen du) eta Ekialdeko Europako (%30ek bere burua bere jaiotza-herrialdearekin identifikatzen du) kasuan.

Dena den, erantzunak desberdinak dira hizkuntza-ereduaren arabera. Hain zuzen ere, beren gurasoen jaiotza-herrialdearekin identifikatzen diren pertsonen tasa askoz handiagoa da A ereduan (%54,7).

Azkenik, 2008tik 2013ra artean iritsi ziren pertsonen artean ohikoagoa da jaiotza-herrialdearekin identifikatzea (%55); hau da, Espainiara berriki, azken aldian, iritsi ziren familien kasuan.

Lehen Hezkuntzako neska-mutilei egindako beste galdera bat gainerako ikasleekiko hauteman duten desberdintasunari buruzkoa da. 95. grafikoa ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko ikasle gehienak gainerakoak bezala sentitzen dira (%65,7), %19k dio antzekoa sentitzen dela, eta, azkenik, %12,6k gainerakoekiko desberdina ikusten du bere burua.

95. grafikoa Hautemandako desberdintasuna, atzerritar jatorria, %


9.G. Gainerako neska-mutirik bezalakoa edo desberdina sentitzen zara?
Iturria: egileek egina

Aldagai soziodemografikoen arabera desberdintasunei dagokienez, atzerritar jatorriko ikasleen artean alde adierazgarriak hauteman dira familia-jatorriaren eremuaren arabera; hain zuzen ere, asiar jatorriko ikasleak beste jatorri batzuetakoak baino neurria handiagoan sentitzen dira gainerakoekiko desberdinak (%33,3). Azkenik, iritsiera-urtearen arabera, gainerakoekiko antzekoak sentitzen diren berriki finkatutako atzerritar jatorriko ikasleen tasa handiagoa da (%45,1) 2008 baino lehenago iritsitako familien tasa baino.

Ondoren, identitate-gaiei buruz Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoek dituzten iritziak aztertzen ditugu; adibidez, erlijio-identifikazioa edo inkestatutako pertsonen jatorriko tradizioei eusteari zer garrantzi ematen dioten.

Erlijio-identifikazioari buruz, lehenik eta behin, inkestatutako pertsonari galdetu genion zenbateraino sentitzen den erlijiozalea. 96. grafikoan ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko gurasoen %48,2k erlijiozale gisa definitzen du bere burua, %31,5ek ez asko ez gutxi, eta %19,1ek dio ez dela erlijiozalea.


96. grafikoa Gurasoen erlijiozaleatasun-maila, jatorriaren arabera, %



77.G. Erlijiozaleztat al duzu zure burua?
Iturria: egileek egina


Ezaugarri soziodemografikoei dagokienez, jatorriaren arabera, jatorri autoktonoko gurasoen artean erlijiozale gutxiagoa (%17,4) dagoela hauteman dugu atzerritar jatorrikoen artean baino (%48,2). Jatorriaren eremuaren arabera, atzerritar jatorriko gurasoen artean pertsona erlijiozale gehiago daude afrikar jatorrikoen artean (%67,2), eta asiar jatorriko gurasoek dute portzentaje txikienetako bat (%16,7).

Ondoren, erlijiozale gisa definitu diren pertsonen zer erlijiotakoak diren galdetu diegu. 97. grafikoan ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko gurasoen erdiak baino pixka bat gehiago (%56,2) katoliko, protestante edo ortodoxo gisa definitzen dira, eta lautik batek dio musulmana dela; zehazki, %25,5ek.

97. grafikoa Zer erlijiotakoak diren, atzeritar jatorriko gurasoak, %

78.G. Zein da zure erlijioa?
Iturria: egileek egin

Bestetik, jatorriko herrialdeko tradizioei eustearen garrantziaz Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoek zer iritzi duten jakin nahi genuen. Hala, ikusi dugu atzeritar jatorriko guraso guztien hamarretik lauk (%41,9) oso garrantzitsutzat jotzen dutela jatorriko tradizioei eustea, eta beste heren baten ustez, nahiko garrantzitsua dela (%29,1). Bestetik, %20,5ek garrantzi gutxi ematen dio, eta %7,5ek, batere ez.

98. grafikoa Jatorriko tradizioak eusteari atzeritar jatorriko gurasoek ematen dioten garrantzia, %

79.G. Zer garrantzi du zuretzat zure jatorriko herrialdeko tradizioei eusteak?
Iturria: egileek egin

Jatorriaren eremuaren arabera, Ekialdeko Europatik etorritako pertsonak dira garrantzi gutxien ematen dietenak jatorriko tradizioei eusteari (%35ek dio garrantzi gutxi duela); Afrikatik etorritako pertsonak (%52,7k garrantzi handia ematen dio) eta Asiatik etorritakoak (%50) aurkako muturrean daude.


Laburbilduz

1. Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasle gehienen euskaldun edo espainiar gisa definitzen dute beren burua. Dena den, beren burua euskaldun gisa identifikatzen dutenen tasa altuagoa da jatorri autoktonoko ikasleen artean. Berriki finkatutako asiar jatorriko eta Ekialdeko Europako jatorriko pertsonak neurri handiagoan identifikatzen dute beren burua beren gurasoen jatorriko herrialdearekin. Gainerako neska-mutilekiko beren burua nola ikusten duten galdetuta, atzerritar jatorriko ikaslek gehienek erantzun dute gainerakoen berdinak sentitzen direla; hala ere, asiar jatorriko ikasleak gainerakoak baino desberdinagoak sentitzen dira.
 2. Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoak maila ertain-altuko erlijiozaletasuna dute, eta haien tasa jatorri autoktonokoen bikoitza da. Jatorriaren eremua-
ren arabera, afrikar jatorriko gurasoak dira erlijiozaletasun-maila handiena adierazi dutenak. Erlijiozaleak direla dioten atzerritar jatorriko gurasoen artean, gehienak katolikoak, protestanteak edo ortodoxoak dira.
 3. Jatorriko tradizioei eta ohiturei eustearen garrantziari dagokionez, uste hori hedatuago dago Afrikatik eta Asiatik etorritako gurasoen artean.
-

Identitatea eta integrazioa: bigarren hezkuntza

Bigarren Hezkuntzako ikasleen kasuan, beste ataletan bezala, identitateari eta integrazioari buruzko gaien gaineko informazio osoagoa lortu dugu; esate baterako, normalean zer hizkuntzatan ikusten duten telebista, zer hizkuntzatako liburuak edo aldizkariak dituzten, pertinenentzia-sentimendua eta nazio-identifikazioa, erlijio-gaiak, eta gurasoen jatorriko tradizioei eutsi eta transmititzearen garrantzia. Lehenik eta behin, telebista, filmak eta serieak zer hizkuntzatan ikusten dituzten eta liburuak edo aldizkariak zer hizkuntzatan irakurtzen dituzten galdetu diegu. 99. grafikoan ikus daitekeen moduan, aipatutako jardueretan atzeritar jatorriko ikasle gehienek erabiltzen duten hizkuntza gaztelania da; portzentaje altuenak dira telebistari dagokionez (%93,9) eta filmei edo serieei dagokionez (%98,1), eta pixka bat baxuagoa liburuei edo aldizkariari dagokionez (%81,3). Euskararen erabilerari dagokionez, inork ez dau aipatu telebista ikusteko ohiko hizkuntza gisa. Filmak edo serieak ikusteko ere ez da erabiltzen. Azkenik, %12,7k dio euskarazko liburuak edo aldizkariak dituela etxean. Arabiera %6,1ek aipatu du telebistaren kasuan, eta %3k arabierazko liburuak edo aldizkariak ditu etxean. Amaitzeko, Pakistango hizkuntza inkestatutako pertsonen %1,9k erabiltzen du etxean serieak edo filmak ikusteko.

99. grafikoa Etxean normalean erabiltzen dituzten hizkuntzak, atzeritar jatorria, %




10.G. Zer hizkuntzatan ikusten da telebista zure etxean gehienetan?

11.G. Zer hizkuntzatan ikusten dituzu filmak edo serieak gehienetan?

12.G. Zer hizkuntzatan daude idatzita zure etxeko aldizkari eta liburu gehienak?


Iturria: egileek egina

Ondoren, Bigarren Hezkuntzako atzeritar jatorriko neska-mutilei nongoak sentitzen diren galdetu diegu. Erdiak baino pixka bat gutxiagok (%45,7) beren edo beren gurasoen jatorriko herrialdearekin identifikatzen dute beren burua; %17,1 euskalduna sentitzen da, eta %15,1, espainiarra. Azkenik, %16,8k jatorriko herrialdeen eta euskaldunen edo espainiarren zenbait konbinazioarekin identifikatzen du bere burua.

100. grafikoa Nazio-identifikazioa, atzeritar jatorria, %

13.G. Nongoa sentitzen zaren galdetzen badizute, zer erantzungo zenuke?
Iturria: egileek egina

Familia-jatorriaren arabera, alde adierazgarriak daude. Jatorri autoktonoko ikasleen kasuan, hamarretik seik euskaldun gisa identifikatzen dute beren burua (%64,5), eta portzentaje hori %17,1ekoa da atzeritar jatorriko ikasleen kasuan.


101. grafikoa Nazio-identifikazioa, jatorriaren arabera, %

13.G. Nongoa sentitzen zaren galdetzen badizute, zer erantzungo zenuke?
Iturria: egileek egina

Atzeritar jatorriko ikasleen familia-jatorriaren eremuaren arabera, hurrengo grafikoan ikusten da “euskalduna” aukera afrikar jatorriko pertsonen kasuan soilik agertzen dela, non erdiak baino pixka bat gehiago euskaldunak sentitzen diren. Aldi berean,

familia-jatorriko herrialdearekin identifikatzen diren jatorri horretako pertsonen proportzioa da txikiena, %25,7. Asiar jatorriaren kasuan, proportzio hori %50 da; latinoamerikarren kasuan, %57,1; eta Ekialdeko Europakoen kasuan, %50. Beren burua espainiar gisa identifikatzea ohikoagoa da latinoamerikar jatorriko ikasleen artean: %28,6 espainiarra sentitzen da, eta beste %7,1, espainiarra eta euskalduna. Asiar jatorriko ikasleen artean ere, pertsona asko espainiarrak sentitzen dira; baina, hala ere, galdera horri zer erantzun jakin izan ez duten pertsonen tasa ere oso altua da.


102. grafikoa Nazio-identifikazioa, jatorriaren arabera, %



13.G. Nongoa sentitzen zaren galdetzen badizute, zer erantzungo zenuke?
Iturria: egileek egina

Inkestan, erlijiozaletasun-mailarekin eta erlijio-pertenentziarekin lotutako gaiei buruz ere galdetu diegu Bigarren Hezkuntzako ikasleei. 103. grafikoa ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko ikasleen %32,5ek oso erlijiozaletzat jotzen dute beren burua, %44,9k uste du ez direla ez oso erlijiozaleak ez eta erlijiozaletasun txikikoak ere, eta %19,3k dio ez dela batere erlijiozalea.


Dena den, familia-jatorriaren arabera alde adierazgarriak hauteman dira. Hala, pertsona oso erlijiozaleen tasa oso txikia da jatorri autoktonoko pertsonen artean (%3,3), eta atzerritar jatorriko pertsonen artean, berriz, portzentaje hori %32,5ekoa da. Aldiz, jatorri autoktonoko ikasleen erdiak inguru (%48,4) ez dira batere erlijiozaleak, eta beste erdiek (%48,4) diote ez direla ez oso erlijiozaleak ez eta erlijiozaletasun txikikoak ere.

103. grafikoa Erlijiozaletasun-maila, jatorriaren arabera %

14.G. Erlijiozaletzat al duzu zure burua?
Iturria: egileek egina

Jatorriaren eremuaren arabera, afrikar jatorriko ikasleen artean hauteman da erlijiozaletasun-mailarik handiena (erantzunen %46,9 baieztokak). Azkenik, erlijiozalea ez dela dioten ikasleen portzentajea handiagoa da goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben kasuan.


Ondoren, erlijiozaleak direla esan duten pertsonen, zer erlijiotakoak diren galdetu diegu. Hala, atzerritar jatorriko pertsona gehienek diote haien erlijioa katolikoa, protestantea edo ortodoxoa dela (%59,5). Bigarren erlijio ugariena musulmana da; gutxi gorabehera, erantzunen heren bat (%31,7). Azkenik, erlijio ebanjelikoa kasuen %4,1ean aipatzen da, budista %2,3an eta hinduista kasuen beste %2,3 batean.

104. grafikoa Erlijio-pertenentzia, atzerritar jatorria, %

15.G. Zein da zure erlijioa?
Iturria: egileek egina

Bigarren Hezkuntzako ikasleei familia-jatorriko tradizioei eusteko garrantziari buruzko galderak ere egin dizkiegu gure galde-sortan. 105. grafikoan ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko ikasleek garrantzi handiagoa ematen diote gai horri jatorri autoktonokoek baino; hain zuzen ere, atzerritar jatorriko ikasleen %81,8k uste du nahiko garrantzitsua edo oso garrantzitsua dela, eta jatorri autoktonoko ikasleen artean, tasa hori %64,6koa da.


105. grafikoa Familia-jatorriko tradizioei eusteko garrantziaren maila, jatorriaren arabera, %



16.G. Zer garrantzi du zuretzat zure edo zure gurasoen herrialdeko tradizioei eustea?
Iturria: egileek eginga

Familia-jatorriaren eremuaren arabera, afrikar jatorriko ikasleek garrantzi handiagoa ematen diote (%43,4) beste jatorri batzuetakoek baino. Dena den, latinoamerikar jatorriko pertsonen artean, familia-jatorriko tradizioei eustea nahiko garrantzitsua izatea da nagusi den iritzia. Aldiz, desadostasun-maila handiena asiar jatorriko (%25ek ez dio batere garrantzirik ematen) eta Ekialdeko Europako ikasleen artean erregistratu da; azken horretan, erdiek uste dute garrantzi gutxiko gai bat dela.


Identitatearekin eta integrazioarekin lotutako gaiekin jarraituz, Bigarren Hezkuntzako ikasleei galdetu diegu ea zer hizkuntzatan nahiko zituzketen hezi beren seme-alabak etorkizunean. 106. grafikoan ikus daiteke atzerritar jatorriko hamar ikasletik seik beren ondorengoak gaztelaniaz heziko zituzketela (%69,5), %21,4k jatorriko hizkuntzan eta %15,7k euskaraz. Familia-jatorriaren arabera, ikusten da jatorri autoktonoko familietako ikasleen artean, gehien aipatutako aukera euskara dela (%58,1), eta %38,7k gaztelaniaz heziko zituzkeela.

106. grafikoa Seme-alaba zer hizkuntzatan heziko zuketean, jatorriaren arabera, %

17.G. Seme-alaba bat izango bazenu, zer hizkuntzatan heziko zenuke?
Iturria: egileek egina

Familia-jatorriaren eremuaren arabera, alde adierazgarriak daude. Latinoamerikar jatorriko ikasleak dira gaztelaniaz hezteari lehentasun handiena ematen diotenak (%92,9). Hizkuntza-ereduaren arabera, D ereduari agertzen dira tasa altuenak ondorengoak euskaraz hezteari dagokionez (%31,7).


Ondoren, ondorengoak erlijioaren batean heziko zituzketen galdetu diegu, eta hala izanez gero, zer erlijiotan heziko zituzketen. 107. grafikoa ikus daitekeen moduan, inkestatutako atzeritar jatorriko pertsonen ia erdiak beren seme-alabak erlijioaren batean heztearen aldekoak dira (%54,8), eta %37,5, aurkakoak. Familia-jatorriaren arabera, ikus dezakegu ezezko erantzunen tasa altuagoa dela jatorri autoktonoko ikasleen artean (%58,1). Familia-jatorriaren eremuaren arabera, Afrika nabarmentzen da beren ondorengoak erlijioaren batean heztearen alde (%76) beste jatorriekin alderatuta.

107. grafikoa Seme-alaben erlijio-heziketa, jatorriaren arabera, %

18.G. Seme-alabaren bat bazenu, erlijioaren batean heziko al zenuke?
Iturria: egileek egina

Aurreko galderari baiezko erantzuna eman dietenei beren ondorengoak zein erlijiotan heziko zituzketen galdetu diegu. 108. grafikoa ikus daitekeenez, atzeritar jatorriko ikasleen %46,7k erlijio musulmanean heziko zituzketen beren ondorengoak; %43,8k, erlijio katolikoan, protestantean edo ortodoxoan; beste %6k, ebanjelikoan; eta, azkenik, %23,4k, erlijio hinduistan.

108. grafikoa Seme-alabak zer erlijiotan heziko zituzketen, atzeritar jatorria, %



19.G. Zeinetan?
Iturria: egileek egina

Azkenik, EAEko Bigarren Hezkuntzako ikasleek hautematen duten onarpen-mailaz galdetu dugu. Horretarako, euskal gizartearen parte zenbateraino sentitzen diren 0tik 10era ebaluatzeko eskatu diegu, 0 “batere ez” eta 10 “erabat” izanik. Batez besteko balioa jatorri autoktonoko biztanlerian aurkitu dugu (8,47 puntu). Ondoren, Ekialdeko Europa eta Asia ageri dira, integrazio aski onarekin (7,50 puntu), atzeritar jatorriko ikasleen batez bestekotik gora (7,03 puntu). Aldiz, Latinoamerikak eta Afrikak dituzten balio txikienak; 6,86 eta 6,95 puntu, hurrenez hurren.

109. grafikoa Integrazio-maila euskal gizartean, jatorriaren arabera, batez besteko balioak




20.G. Euskal gizartearen parte sentitzen al zara?
Iturria: egileek egina

Hizkuntza-ereduaren arabera, A ereduko (8,00 puntu) eta D ereduko (7,43 puntu) ikasleak B ereduko ikasleak (6,83 puntu) baino integratuago daudela sentitzen dira. Gurasoen hezkuntza-maila integrazioaren pertzepzioan alde adierazgarriak sartzen dituen beste aldagai bat da. Hain zuzen ere, goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alabak (7,34 puntu) integratuago sentitzen dira lehen mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alabak baino (6,91 puntu).


Lehen Hezkuntzan bezala, identitate-gaiei buruzko galderak egin dizkiegu Bigarren Hezkuntzako ikasleen gurasoei ere. Oro har, atzerritar jatorriko gurasoek jatorri autoktonoek baino erlijiozaletasun-maila handiagoa erakusten dutela ikusi dugu. Hala, inkestatutako atzerritar jatorriko pertsonen %57,9k oso erlijiozalea dela dio, eta jatorri autoktonoko gurasoen kasuan, tasa hori %3,2koa da. Beste %25,4k dio ez dela ez oso erlijiozalea ez eta erlijiozaletasun txikikoak ere (%61,3 autoktonoen artean), eta atzerritar jatorriko %16,6k, ez dela batere erlijiozalea. Tasa hori %35,5koa da jatorri autoktonoko gurasoen artean.

110. grafikoa Gurasoen erlijiozaletasun-maila jatorriaren arabera, atzerritar jatorria, %



77.G. Erlijiozaletzat al duzu zure burua?

111. grafikoa Erlijio-pertenentzia, atzerritar jatorria, %




78.G. Zein da zure erlijioa?
Iturria: egileek egin

Bigarren Hezkuntzako gurasoen jatorrien araberako desberdintasunei erreparatuz gero, afrikar jatorriko ia guraso guztiak oso erlijiozaleak direla (%92) ikusiko dugu. Ondoren, Ekialdeko Europakoak (%50) eta Latinoamerikakoak (%42,9) daude. Aurkako muturrean, jatorri autoktonoko pertsonak (%3,2) daude, eta neurri txikiagoan, Asiakoak (%25).

Erlijioarekin lotutako gaiekin amaitzeko, oso erlijiozaleak direla erantzun duten pertsonen zer erlijiotakoak diren galdetu diegu. %55,1 katolikoa, protestantea edo ortodoxoa da; %28,7, musulmana; %3,3, ebanjelista; eta %1,9, hinduista.

Azkenik, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko gurasoei beren jatorriko herrialdeko tradizioei eustearen garrantzia baloratzeko eskatu diegu. 112. grafikoa ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko gurasoen %50,7k uste du oso garrantzitsua dela; heren batek uste du nahiko garrantzitsua dela (%27,2); eta %22,1ek, gai horrek garrantzi gutxi duela.

112. grafikoa Jatorriko tradizioak eusteari atzerritar jatorriko gurasoek ematen dioten garrantzia, jatorriaren arabera, %



79.G. Zer garrantzi du zuretzat zure jatorriko herrialdeko tradizioei eusteak?
Iturria: egileek egin

Jatorri autoktonoko edo euskalduneko gurasoek garrantzi gutxiago ematen diote jatorriko herrialdeko tradizioei eusteari atzerritik datozenek baino.

Laburbilduz

1. Telebista, filmak edo serieak ikusteko eta liburuak irakurtzeko gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da, eta ez dago alde adierazgarririk jatorriaren edo beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera.
2. Nazio-identifikazioari dagokionez, euskalduna sentitzen den pertsona gehiago daude jatorri autoktonokoan artean atzerritar jatorrikoen artean baino. Azken horien kasuan, ia erdiek aitaren edo amaren jatorriko herrialdearekin identifikatzen dute beren burua. Familia-jatorriaren eremuaren arabera, afrikar jatorriko pertsonak (askok familia-jatorriko herrialdearekin identifikatzen du bere burua) euskaldun gisa identifikatzen dira beste jatorri batzuetakoak baino neurri handiagoan.
3. Erlijio-gaiei dagokionez, familia autoktonoetako ikasleen artean pertsona erlijiozale gutxiago dago atzerritar jatorriko ikasleen artean baino. Afrikar jatorriko pertsonak dira erlijiozaletasun-maila handiena adierazi dutenak. Aldiz, erlijiozalea ez dela dioten atzerritar jatorriko ikasleen portzentajea handiagoa da goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben kasuan.
4. Erlijio-pertenentziari dagokionez, atzerritar jatorriko ikasle gehienek diote beren erlijioa katolikoa, protestantea edo ortodoxoa dela. Gehien aipatutako bigarren erlijioa musulmana da.
5. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek neurri handiagoan uste dute familia-jatorriko tradizioei eta ohiturei eustea garrantzitsua dela; baita, Afrikatik etorritako pertsonen. Aldiz, Asiatik eta Ekialdeko Europatik etorritako ikasleen ustez, gai hori ez da hain garrantzitsua.
6. Seme-alabak zer hizkuntzatan heziko zituzketen galdetuta, atzerritar jatorriko ikasleen artean gaztelania da gehien aipatu den aukera; latinoamerikar jatorriko gehienek seme-alabak gaztelaniaz heziko zituzketen, eta jatorri autoktonokoek, euskaraz. Azkenik, D ereduan agertzen dira tasa altuenak ondorengoak euskaraz hezteari dagokionez.
7. Bigarren Hezkuntzako ikasleek beren ondorengoan erlijio-hezkuntzari buruz duten iritziari dagokionez, atzerritar jatorriko pertsonen adostasun-maila handiagoa adierazi dute jatorri autoktonoko pertsonen baino. Familia-jatorriaren eremuaren arabera, afrikar jatorriko pertsonak neurri handiagoan daude ondorengoak erlijioaren batean heztearen alde gainerako jatorrietakoak baino.

8. Euskal gizarteko integrazio-maila handiagoa da jatorri autoktonoko ikasleen kasuan; ondoren, Ekialdeko Europa eta Asia daude. Aldiz, Latinoamerika eta Afrika dira balio baxuenak dituzten familia-jatorriak. Bestetik, integratuenak sentitzen direnak A ereduiko ikasleak eta goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alabak dira.
 9. Gurasoei dagokienez, haien seme-alabak baino erlijiozaleagoak dira. Alderdi horretan ere, atzeritar jatorriko pertsonak dira erlijiozaleenak; bereziki, afrikar jatorrikoak. Erlijiozaleak direla dioten pertsonen artean, gehien aipatu den aukera katolikoa, protestantea edo ortodoxoa izan da.
 10. Azkenik, atzeritar jatorriko gurasoek askoz garrantzi handiagoa ematen diote jatorriko tradizioei eusteari autoktonoek baino
-

5


Gizarte-harremanak

Gizarte-harremanak: lehen hezkuntza

Atal honetan, Lehen Hezkuntzako ikasleen eta haien gurasoen gizarte-harremanei buruzko datuak aztertu ditugu, lagunen jatorriari arreta berezia jarrita.

Lehenik eta behin, lagun-kopuruari dagokionez, 113. grafikoan ikus daiteke atzerritar jatorriko ikasleek 2,89 lagun dituztela, batez beste; eta ez dago alde adierazgarririk familia-jatorriaren arabera.

113. grafikoa Lagun-kopurua jatorriaren arabera, batez besteko balioak




10.G. Lagun-kopurua
Iturria: egileek egina

Lehen Hezkuntzako ikasleen familia-jatorriaren arabera, gehienek diote haien lagunen familia-jatorriak espainiarra eta euskalduna direla. Hiru lagun onenen familia-jatorriaz galdetuta, jatorri autoktonoko ikasleen lehen aukera euskal jatorriko pertsonak (kasuen %66,8) eta espainiar jatorriko pertsonak dira (kasuen %26,1); atzerritar jatorriko familietako lagunen kopuruak ez du %7,1 gainditzen. Atzerritar jatorriko ikasleen lagunei dagokienez, euskal jatorriko lagunen proportzioa txikiagoa da: %52,6. Aldi berean, atzerritar jatorriko ikasleen kanpoko lagun-kopurua hiru aldiz handiagoa da jatorri autoktonoko ikasleena baino. Familia-jatorriaren eremuaren arabera, asiar jatorriko ikasleak dira atzerritar jatorriko lagun gutxien dituztenak, eta Latinoamerikako eta Ekialdeko Europako jatorria duten ikasleek lagun espainiar gehiago dituzte beste jatorrietakoek baino.

Ikasle autoktonoen artean, atzerritar jatorriko lagunen tasa bikoitza da bigarren aipamenean (%14,9), eta gauza bera gertatzen da Ekialdeko Europako (%45) eta

Asiako (%16,7) jatorria duten ikasleekin ere. Azkenik, hirugarren aipamen gisa, datuak aurreko kasuaren antzekoak dira.


114. grafikoa Lagunen familia-jatorria, lehen, bigarren eta hirugarren aipamena jatorriaren arabera, %



10.G. Pentsatu nor diren zure hiru lagun onenak. Nongoak dira?
Iturria: egileek egina

Lagunen familia-jatorriaren osaeraz galdetu diegunean, atzerritar jatorriko ikasleen %64,5ek adierazi du jatorri autoktonoko eta beste herrialde batzuetako pertsonek osatzen dutela. %26,9k dio guztiak edo ia guztiak euskal jatorrikoak direla; eta azkenik, %7,7ren lagun guztiek edo ia guztiek beste herrialde batzuetako jatorria dute.


Familia-jatorriaren arabera, alde adierazgarriak daude. Jatorri autoktonoko ikasleen lagun gehienak jatorri berekoak diren arren (%62,3), atzerritar jatorriko ikasleen artean, gehienek euskal jatorriko eta beste herrialde batzuetako jatorria duten lagunak dituzte (%64,5).

115. grafikoa Lagun-taldearen jatorria, jatorriaren arabera, %

11.G. Nolako da zure lagun-taldea?
Iturria: egileek egina

Familia-jatorriaren eremuaren arabera, afrikar jatorriko ikasleen artean, jatorri autoktonoko lagunak dituzten pertsona gutxiago daude (%11,4), eta gehienek lagunak jatorri autoktonoko eta atzeritar jatorriko pertsonak dira (%82,9). Asiaren kasuan, heren batek atzeritar jatorriko lagunak soilik dituen arren, erdien lagunak euskal jatorriko pertsonak dira.


Azkenik, galdetu diegu haurren zer talderekin nahiago duten jolasean jardun, jatorria kontuan hartuta. 116. grafikoa ikus daitekeen moduan, atzeritar jatorriko ikasleen %76,3k nahiago du talde mistotan jolastu; hau da, pertsona autoktonoek eta kanpokoek osatutako taldeetan. %13,5ek nahiago du guztiak edo ia guztiak autoktonoak diren taldeak, eta %6,6k ia pertsona guztiak atzeritar jatorrikoak diren taldea aukeratzeko luke. Familia-jatorriaren arabera, jatorri autoktonoko ikasleek euskal jatorriko neska-mutilez osatutako taldea aukeratzeko joera dute (%21,7; aurreko kasuan %15,3 zen). Hala ere, atzeritar jatorriko pertsonen talde bat aukeratu zukeen portzentajea (%10,1) handiagoa da atzeritar jatorriko ikasleen beraien kasuan baino (%6,6).

116. grafikoa Jolaserako nahiago duten taldearen osaera, jatorriaren arabera, %

12.G. Zer haur-talderekin nahiago duzu jolasean jardun?
Iturria: egileek egina

Azkenik, familia-jatorriaren eremuaren arabera, Lehen Hezkuntzako asiar jatorriko ikasleek nahiago dituzte soilik atzeritar jatorriko haurrez osatutako taldeak, eta Ekialdeko Europako jatorria dutenek nahiago dute haur autoktonoekin jardun jolasean talde mistoekin edo kanpoko pertsonen osatutako taldeekin baino. Bestetik, gurasoei ere galdetu diegu inkestatuaren lagunez eta haren bikotekidearen lagunez ere, bikotekidea izanez gero.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da inkestatutako pertsonen erantzunen banaketa kasik bat datorrela haien bikotekideek estimatutakoarekin. Bi kasuetan, atzeritar jatorriko gurasoen aukera nagusia lagun-talde mistoa da (%67,9); bigarren aukera lagun gehienak pertsona autoktonoak izatea da (%15,4); kasuen %6,7an, lagunak atzeritar jatorriko pertsonak soilik dira.

117. grafikoa Gurasoen lagunen jatorria, jatorriaren arabera, %

80.G. Nongoak dira zure lagunak edo ezagunak?
Iturria: egileek egina

Jatorriaren arabera, alde adierazgarriak daude. Atzerritar jatorriko gurasoen lagunak jatorri mistoetako pertsonak dira, kanpoko lagunak eta lagun autoktonoak dituztelako. Jatorri autoktonoko pertsonen lagunak soilik autoktonoak direnen taldetan eta gehienak autoktonoak diren taldetan banatzen dira.

Familia-jatorriaren eremuaren arabera, nabarmentzekoa da Afrikatik etorritako pertsonen kasua; izan ere, haiek dira lagunaren artean pertsona autoktono gutxien dituztenak. Gainera, beren lagun gehienak beste herrialde batzuetako pertsonak direla dioten tasa handiena dute.

Erantzunak bereizten dituen beste aldagai bat seme-alabaren hezkuntza-eredua da. Ohikoagoa da ondorengoak A ereduan matrikulatuta dituzten pertsonak batik bat beste herrialde batzuetako lagunak izatea (%32,9) seme-alabak B ereduan (%4,2) edo D ereduan (%6,68) matrikulatuta dituztenekin alderatuta. Ikastetxe-motaren arabera, sare pribatuko eta itunpeko sareko ikastetxeetan lagunaren artean pertsona autoktono gehiago daude (%15,3) sare publikoan baino (%3,6).

Laburbilduz

1. Atzerritar jatorriko ikasleen gehiengo zabalak lagun mistoak ditu, eta atzerritar jatorriko lagunak tasa hirukoitza da jatorri autoktonoko ikasleen artean hautemandakoarekin alderatuta.
 2. Jatorri autoktonoko ikasleen lagun gehienak haien jatorri berekoak dira, eta atzerritar jatorriko lagunak ez dira oso ohikoak.
 3. Atzerritar jatorriko eta jatorri autoktonoko ikasleek, jolasean jarduteko, nahiago dituzte lagunak talde mistoak; hala ere, azken horiek nahiago dituzte familia-jatorri bereko neska-mutilez soilik osatutako taldeak. Ekialdeko Europako jatorria duten ikasleek nahiago dute jatorri autoktonoko neska-mutilekin jolasean jardun talde mistoekin edo atzerritar jatorriko pertsonaz osatutako taldeekin baino.
 4. Atzerritar jatorriko gurasoen lagunei dagokienez, nahiago dituzte jatorri mistoko lagunak; eta guraso autoktonoek, berriz, nahiago dituzte haien jatorri bereko lagunak. Afrikatik etorritako pertsonak dira biztanleria autoktonoko lagun gutxien dituztenak. Ondorengoak A ereduari matrikulatuta dituzten pertsonen lagunak beste herrialde batzuetako pertsonak izaten dira gehienbat, B eta D ereduari gurasoekin alderatuta. Azkenik, ikastetxe-motaren arabera, seme-alabak ikastetxe pribatuetan eta itunpeko ikastetxeetan matrikulatuta dituzten gurasoen artean, euskal jatorriko lagunak dituzten pertsonen portzentajea handiagoa da seme-alabak ikastetxe publikoetan matrikulatuta dituzten gurasoen kasuan baino.
-


Gizarte-harremanak: bigarren hezkuntza

Atal honetan, Bigarren Hezkuntzako ikasleen eta haien gurasoen gizarte-harremanei buruzko datuak aztertuko ditugu. Lehenik eta behin, hiru lagun onenen jatorriaz galdetu diegu. Lehen aipamenari dagokionez, ikus daiteke atzerritar jatorriko ikasleen lagunak erdian jatorria Euskadi dela (%50,4), eta jatorri autoktonoko ikasle gehienek lehen aipamena euskal jatorriko lagunak direla (%83,4).

Lehen aukera gisa lagun atzerritar bat dutenen tasa handiagoa da atzerritar jatorriko ikasleen artean (%33,1) atzerritar jatorriko lagunak dituzten jatorri autoktonoko pertsonekin alderatuta (%3,3).


Atzerritar jatorriko pertsonen lagunei buruzko bigarren eta hirugarren aipamena kasik ez da aldatzen.

118. grafikoa Hiru lagun onenen jatorria, jatorriaren arabera, %



*Pentsatu nor diren zure hiru lagun onenak. Zer izen dute eta nongoak dira?
Iturria: egileek egina*

Ondoren, beren lagun-taldean familia-jatorriak adierazteko eskatu diegu. 119. grafikoan ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko ikasleen artean ez da hain ohikoa soilik pertsona autoktonoz osatutako lagun-taldea izatea (%25,1) jatorri autoktonoko ikasleekin alderatuta (%61,3). Errazagoa da lagun-talde mistoak, erdia eta erdia, izatea atzerritar jatorriko ikasleen artean (%36,3) euskal jatorriko ikasleen artean baino (%9,7). Soilik atzerritar jatorriko ikasleek aipatu dute (%4,9) beren lagun-artean atzerritar jatorriko familietako lagunak daudela.

119. grafikoa Lagun-taldearen osaera, jatorriaren arabera, %

22.G. Nongoa da zure lagun-taldea?
Iturria: egileek egin

Bestetik, ikastetxe-motaren arabera, alde adierazgarriak agertu dira atzerritar jatorriko ikasleen erantzunen banaketan. 10. taulan ikus dezakegunez, soilik jatorri autoktonoko pertsonaz osatutako lagun-taldeak ohikoagoak dira itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleen artean (%41,6) ikastetxe publikoetan baino; azken horiei buruzko datua nabarmen txikiagoa da (%10,5).

10. taula Lagun-taldearen osaera ikastetxe-motaren arabera, atzerritar jatorria, %

	PUBLIKOA	ITUNPEKOA PRIBATUA
Guztiak hemengoak	10,5	41,6
Erdiak hemengoak	51,6	13,5
Erdia eta erdia	34,4	38,5
Gehienak beste herrialde batzuetakoak	3,5	6,5

22.G. Nongoa da zure lagun-taldea?
Iturria: egileek egin

Hizkuntza-ereduen arabera, jatorri autoktonoko lagunak dituzten D ereduan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleen proportzioa (%56,7) handiagoa da B ereduan (%35,6) eta A ereduan (%0) matrikulatutako ikasleena baino.


Azkenik, Bigarren Hezkuntzako ikasleei beren gustuei eta beren adineko neska-mutilekin partekatzen dituztela uste duten sinesmenei buruzko galderak egin dizkiegu. 120. grafikoan ikus daitekeen moduan, atzerritar jatorriko ikasleek gehien partekatzen dituzten gaiak dibertitzeko moduak (%92), hizkuntza (%90,1), musika entzutea (%88,7), leku beretara joatea (%88,7) eta hitz egiteko eta adierazteko moduak (%83,8) dira. Aldiz, gutxien partekatzen dituztenak erlijio bera (%25,5) eta ideia eta sinesmen berak izatea (%54,5) dira.

Dena den, alde adierazgarriak daude jatorriaren arabera. Esate baterako, musika entzutea atzerritar jatorriko %88,7k partekatzen du, baina jatorri autoktonoko ikasleen artean, %67,7k soilik. Bizitzako arazoak ere ez dira modu berean partekatzen ikasleen familia-jatorriaren arabera: atzerritar jatorriko ikasleen %63,8k uste du bere adineko beste neska-mutil batzuekin partekatzen dituela, eta jatorri autoktonoko ikasleen kasuan, kopuru hori %38,7koa da. Erlijioari dagokionez, jatorri autoktonoko ikasle gehiagok (%51,6) uste dute partekatzen dutela atzerritar jatorrikoek baino (%25,5).

Auzo berean bizitzea uste da gehiago partekatzen dela atzerritar jatorriko pertsonen artean (%62,3) jatorri autoktonoko pertsonen artean baino (%51,6). Gauza bera gertatzen da dibertitzeko moduekin ere; izan ere, atzerritar jatorriko ikasleek (%92) gehiago partekatzen dituzte ikasle autoktonoek baino (%83,9).

Gai hauek, berriz, atzerritar jatorriko pertsonen eta pertsona autoktonoek partekatzen dituzte: leku beretara joatea, hizkuntza bera, hitz egiteko ea adierazteko moduak, ideiak edo sinesmenak, eta janzteko moduak.

120. grafikoa Adin bereko neska-mutilekin partekatutako gustuak, sinesmenak, ohiturak eta arazoak jatorriaren arabera, %




23.G. Zer partekatzen duzu zure adinekoekin?
Iturria: egileek egina

Azkenik, Bigarren Hezkuntzako ikasleen gurasoei haien lagunei buruzko galderak egin dizkiegu. 121. grafikoa ikus daiteke atzerritar jatorriko gurasoen lagun-taldeak mistoak direla batik bat (%50,7). Gainera, kasuen %25,9an lagun-taldeko gehienak euskal jatorrikoak dira, eta kasuen %20,1ean, lagun gehienak beste herrialde batzuetakoak dira.

Jatorri autoktonoko pertsonen artean, ohikoagoa da soilik hemengo pertsonaz osatutako lagun-taldeak aurkitzea (%58,1). Eta ez da batere ohikoa lagun-talde

mistoak izatea (%3,2), eta are gutxiago lagun guztiak beste herrialde batzuetakoak izatea (batere ez).

121. grafikoa Gurasoen lagunen jatorria, atzeritar jatorria, %



80.G. Nongoak dira zure lagunak edo ezagunak?
Iturria: egileek egin

Inkestatutako pertsonen bikotekideen lagunen jatorriaz ere galdetu dugu; dena den, banaketa aurreko grafikoan aurkeztutakoaren oso antzekoa da.

Laburbilduz

1. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen lagunak jatorri autoktonoko pertsonak dira, batik bat; hala ere, kanpotik etorritako lagun gehiago dituzte jatorri autoktonoko ikasleek baino. Lagun-talde mistoak ohikoagoak dira atzerritar jatorriko ikasleen artean.
 2. Itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan, soilik pertsona autoktonoz osatutako lagun-taldea duten atzerritar jatorriko ikasleen tasa handiagoa da sare publikoan baino. Aldi berean, jatorri autoktonoko lagunak dituzten atzerritar jatorriko ikasleen proportzioa D eremuan da handiena.
 3. Beren adineko gazteekin partekatzen dituzten gustuei, sinesmenei eta arazoei dagokienez, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek gehien aipatutako alderdiak hauek izan dira: dibertitzeko moduak, hizkuntza, musika, leku beretara joatea, eta hitz egiteko eta adierazteko moduak; gutxien aipatutakoak erlijio bera izatea eta ideia eta sinesmen berak izatea dira.
 4. Musika partekatzea neurri handiagoan uste dute atzerritar jatorriko ikasleek jatorri autoktonoko ikasleek baino. Gauza bera gertatzen da bizitzako arazoekin ere. Atzerritar jatorriko ikasleek partekatzen dituztela neurri handiagoan uste dute jatorri autoktonoko ikasleek baino.
 5. Leku beretara joatea, hizkuntza bera hitz egitea, hitz egiteko eta adierazteko moduak, ideiak edo sinesmenak, eta janzteko moduak atzerritar jatorriko ikasleek eta jatorri autoktonoko ikasleek partekatzen dituzte.
 6. Azkenik, gurasoen lagunei dagokienez, atzerritar jatorrikoen artean ohikoagoa da lagun-talde mistoa izatea, eta jatorri autoktonoko artean ohikoagoa da soilik pertsona autoktonoz osatutako lagun-taldea izatea
-


6

Ongizatea

Ongizatea: lehen hezkuntza


Atal honetan, Lehen Hezkuntzako ikasleen ongizate subjektiboarekin lotutako alderdien emaitza nagusiak bildu ditugu; esate baterako, ohiko gogo-aldatea edo norengana jotzen duten arazoren bat dutenean. Hasteko, normalean nola sentitzen diren galdetu diegu. 122. grafikoan ikus daitekeen moduan, Lehen Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasleen gehiengo zabalak (%88,9) dio ongi sentitzen dela, eta %11,1ek, normal sentitzen dela. Ez dago alde adierazgarririk jatorriaren arabera.

122. grafikoa Ohiko gogo-aldatea, atzeritar jatorria, %



28.G. Nola sentitzen zara normalean?
Iturria: egileek egina

Azkenik, arazoren bat dutenean norekin hitz egiten duten galdetu diegu Lehen Hezkuntzako neska-mutilei. Oro har, atzeritar jatorriko ikasleak eta euskal jatorrikoak gurasoengana jotzen dute (%70,5 eta %73,9). Hala ere, heren bat inguruk irakasleak aipatu dituzte. Lagunengana Lehen Hezkuntzako hamar ikasletik batek jotzen du (%12,6 eta %10,1).

123. grafikoa Arazo bat dutenean norengana jotzen duten, jatorriaren arabera, %

29.G. Arazo bat dutunean, norekin hitz egiten duzu?
Iturria: egileek eginak

Familia-jatorriaren arabera, Ekialdeko Europako eta Asiako jatorria duten ikasleek gurasoengana gutxiago jotzen dutela ikusten dugu (%65,0 eta %66,7, hurrenez hurren) gainerako jatorrietakoek baino. Latinoamerikar jatorriko ikasleak dira irakasleengana gutxien jotzen dutenak (%22,9), eta arazo bat izanez gero lagunengana jotzen dutenen portzentaje handienetako bat dute (%16,7), asiar jatorriko ikasleekin batera (%16,7).

Laburbilduz


1. Lehen Hezkuntzako ikasleen gehiengo zabalak dio normalean ongi sentitzen dela. Ez dago alde adierazgarriarik familia-jatorriaren arabera. Arazoren bat dutenean norengana jotzen duten galdetuta, atzeritar jatorriko eta jatorri autoktonoko ikasleek gehien aipatu duten aukera gurasoengana jotzea izan da, eta bigarren aipatuena, irakasleengana jotzea.
 2. Ekialdeko Europako eta Asiako jatorriko ikasleek beste familia-jatorri batzuetakoek baino neurri txikiagoan jotzen dute gurasoengana. Latinoamerikar jatorriko neska-mutilak dira arazoren bat dutenean irakasleengana gutxien jotzen dutenak; haien aukera ohikoena lagunengana jotzea izaten da.
-

Ongizatea: bigarren hezkuntza

Bigarren Hezkuntzako ikasleen ongizatea baloratzeko asmoz, ongizate subjektiboaren dimentsio batzuen adierazleak diren galdera batzuk egin dizkiegu. Lehenik eta behin, jendearengan zer konfiantza duten galdetu diegu, eta 0tik 10era baloratzeko eskatu diegu. Atzerriar jatorriko ikasleek 7,80 puntuko tasa dute batez beste, eta datu hori altuagoa da jatorri autoktonoko ikasleen kasuan: 7,52 puntu.

Familia-jatorriaren eremuaren arabera, batez besteko txikiena asiar jatorriko ikasleena da (6,25 puntu), eta altuena inkestatutako Ekialdeko Europako jatorria duten pertsonena da (7,50 puntu).

124. grafikoa Pertsonarteko konfiantza, jatorriaren arabera, batez besteko balioak



50.G. Zure ustez, zer neurritan fidatu daiteke jendeaz?
Iturria: egileek egina

Ikastetxe-motaren arabera, ikastetxe pribatuetako ikasleek konfiantza gehiago dute jendearengan (7,34 puntu) ikastetxe publikoetakoek baino (6,84 puntu). Hizkuntza-eredua galderari erantzutean populazioa bereizten duen beste aldagai bat da. A ereduko ikasleak dira jendearengan konfiantza gutxien duena: 6,50 puntu; B eredukoak, 6,98 puntu, eta D eredukoak, 7,01 puntu.


Ongizate subjektiboaren beste dimentsio bat zoriontasun-maila da, eta 0tik 10era arteko eskalaren arabera baloratzen da. Hurrengo grafikoa, Bigarren Hezkuntzako atzerriar jatorriko eta jatorri autoktonoko ikasleek zoriontasun-balio handiak dituztela ikus daiteke: 8,14 eta 8,52 puntu, hurrenez hurren.

Familia-jatorriaren eremuaren arabera, 125. grafikoa ikus daitekeenez, balio altuagoak aurkituko ditugu asiar jatorriko (9,00 puntu) eta afrikar jatorriko (8,48 puntu) ikasleen artean; eta balio baxuenak dituztenak Ekialdeko Europako ikasleak dira (7,00 puntu).

125. grafikoa Zoriontasuna, jatorriaren arabera, batez besteko balioak

51.G. Oro har, pertsona zoriontsua zarela uste al duzu?
Iturria: egileek egina


Hurrengo grafikoa, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen batez besteko balioak ikusi daitezke, hizkuntza-ereduaren arabera. A hizkuntza-ereduan matrikulatutako neska-mutilek zoriontsuagoak direla diote (9,5 puntu) B ereduan (8,21 puntu) eta D ereduan (7,87 puntu) matrikulatutakoek baino.

126. grafikoa Zoriontasuna, hizkuntza-ereduaren arabera, batez besteko balioak

51.G. Oro har, pertsona zoriontsua zarela uste al duzu?
Iturria: egileek egina

Bizimoduarekiko asebetetze-mailari dagokionez, oso altua da oro har (8,10 puntu). Hala ere, badaude aldeak familia-jatorriaren arabera; jatorri autoktonoko ikasleek asebetetze-maila altuagoa dute bizimoduarekiko (8,48 puntu) atzerritar jatorrikoek baino (7,93 puntu). Azken horien artean, asebetetze-maila handienekoak Asia (8,75 puntu), Afrika (8,30 puntu) eta Latinoamerikakoak dira (8,00 puntu); maila txikiena, berriz, Ekialdeko Europako jatorrikoek adierazi dute (6,50 puntu).


127. grafikoa Bizimoduarekiko asebetetze-maila, jatorriaren arabera, batez besteko balioak



52.G. Zer neurritan zaude pozik zure bizimoduarekin?
Iturria: egileek egin


Hizkuntza-ereduaren arabera, 128. grafikoa ikus daiteke A ereduari matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleek bizimoduarekiko asebetetze-maila handiagoa dutela (9,00 puntu) B ereduari (7,83 puntu) edo D ereduari (7,89 puntu) matrikulatutako ikasleek baino.

128. grafikoa Bizimoduarekiko asebetetze-maila, atzeritar jatorria, hizkuntza-ereduaren arabera, batez besteko balioak




52.G. Zer neurritan zaude pozik zure bizimoduarekin?
Iturria: egileek egin

Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan bezala, arazoren bat dutenean norekin hitz egiten duten galdetu diegu: gurasoekin, anai-arrebekin, lagunekin, beste senideren batekin edo inorekin ez. 129. grafikoa ikus daitekeen moduan, ikasle gehienek gurasoengana edo tutorengana jotzen dutela dioten arren (%74,9), Bigarren Hezkuntzan gehiago aipatzen da lagunekin hitz egiteko aukera (%46,1) Lehen Hezkuntzan baino. Aldi berean, Bigarren Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasleen %17,6k anai-arrebengana jotzen du, %3,3k beste senideren batengana, eta, azkenik, %3k dio ez duela inorengana jotzen arazoren bat duenean.

129. grafikoa Arazo bat dutenean norengana jotzen duten, atzeritar jatorria, %


53.G. Kezkatuta zaudenean edo arazo bat duzunean, norekin hitz egiten duzu?
Iturria: egileek egina

Gurasoen ikasketa-mailaren arabera, 130. Grafikoa ikus dezakegun moduan, atzeritar jatorriko ikasleak sarriago joaten dira gurasoengana, goi-mailako ikasketak badituzte (%83,5). Aldiz, lehen mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik gabeko gurasoak dituzten ikasleek kasuan, gehiago jotzen dute anai-arrebengana (%45,9), lagunengana (%62,6) edo ez dute inorengana jotzen (%15,3).

130. grafikoa Arazo bat dutenean norengana jotzen duten, atzeritar jatorria, gurasoen ikasketa-mailaren arabera, %


53.G. Kezkatuta zaudenean edo arazo bat duzunean, norekin hitz egiten duzu?
Iturria: egileek egina

Azkenik, beren osasun-egoera baloratzeko eskatu diegu. 131. grafikoa erakusten du atzeritar jatorriko ikasleek ia erdiek oso osasun ona dutela (%53,1), %36,1ek osasun ona duela, eta %10,8k osasun ez ona ez txarra duela. Familia-jatorriaren arabera, jatorri autoktonoko ikasleek dute beren egoera oso ontzat baloratzen dutenen tasa altuena (%74,2; atzeritar jatorriko ikasleek %53,1 baino altuagoa, beraz).

131. grafikoa Osasunaren autoebaluazioa, jatorriaren arabera, %

54.G. Zure ustez, nolakoa da zure osasuna?
Iturria: egileek egina

Gurutzeetako beste aldagai batzuk kontuan hartuta, alde adierazgarriak daude ikastetxe-motaren eta hizkuntza-ereduaren arabera. Itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan, osasunaren autoebaluazioa (%71,2) handiagoa da sare publikoko ikastetxeetan baino (%37,1).

132. grafikoa Osasunaren autoebaluazioa ikastetxe-motaren arabera, atzerritar jatorria %

54.G. Zure ustez, nolakoa da zure osasuna?
Iturria: egileek egina

Azkenik, hizkuntza-ereduaren araberako aldeei dagokienez, B eremuan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleen artean, beren osasuna oso ona dela dioten tasa (%74) altuagoa da A eremuan (%50) edo D eremuan (%26) matrikulatutako ikasleena baino.

Laburbilduz

1. Jendearengan duten konfiantzari dagokionez (ongizate subjektiboaren dimentsioetako bat da), Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen batez bestekoa altua da; hala ere, datu hori jatorri autoktonoko ikasleen kasukoa baino baxuagoa da. Batez besteko baxuena asiar jatorriko ikasleen artean erregistratu da, eta altuena, inkestatutako Ekialdeko Europako jatorriko pertsonen artean. Ikastetxe pribatuetan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleek konfiantza handiagoa duten jendearengan ikastetxe publikoetan matrikulatutakoek baino. Gainera, A ereduko ikasleak neurri txikiagoan fidatzen dira jendeaz D edo B ereduetako ikasleak baino.
 2. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko eta jatorri autoktonoko ikasleen zoriontasun-mailari dagokionez, zoriontasun subjektiboaren balioak altuak dira. Familia-jatorriaren eremuaren arabera, asiar jatorriko ikasleei dagozkien balio altuenak, eta Ekialdeko Europako jatorriko ikasleei dagozkien balio baxuenak. A hizkuntza-ereduan matrikulatutako atzerritar jatorriko neska-mutilek zoriontsuagoak direla diote B ereduan eta D ereduan matrikulatutakoek baino.
 3. Atzerritar jatorriko ikasleek diote oso pozik daudela beren bizimoduarekin; hala ere, balio hori altuagoa da jatorri autoktonoko ikasleen artean. Familia-jatorriaren eremuaren arabera, balio altuenak dituzten jatorriak Asia, Afrika eta Latinoamerika dira. Balio txikiak, berriz, Ekialdeko Europako jatorriari dagozkio. Berriro ere, A ereduan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleak dira bizimoduarekiko asebetetze-balio altuagoak dituztenak B eta D ereduetan matrikulatutako pertsonekin alderatuta.
 4. Arazo bat izatean norengana jotzen duten galdetuta, atzerritar jatorriko ikasle gehienek erantzun dute gurasoengana edo tutorengana jotzen dutela, eta, neurri txikiagoan, lagunengana. Gurasoen ikasketa-mailaren arabera, atzerritar jatorriko ikasleek maizago jotzen duten gurasoengana, haiek goi-mailako ikasketak badituzte. Gurasoek lehen mailako ikasketak badituzte edo ez badute ikasketarik, gehiago jotzen dute anai-arrebengana edo lagunengana, edo ez dute inorengana jotzen.
 5. Azkenik, atzerritar jatorriko ikasle gehienek diote osasun ona edo oso ona dutela; jatorri autoktonoko ikasleak dira oso osasun onaren tasa altuena dutenak. Itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe pribatuetan, atzerritar jatorriko ikasleen osasunaren autoebaluazioa handiagoa da sare publikoan baino. Hizkuntza-ereduaren arabera, B ereduan matrikulatutako atzerritar jatorriko ikasleen artean, beren osasuna oso ona dela dioten tasa altuagoa da A ereduan edo D ereduan matrikulatutako ikasleena baino.
-

7

Itxaropenak

Lehen hezkuntzako itxaropenak

Lehen Hezkuntzako ikasleek beren etorkizunari buruz zer pentsatzen duten bildu dugu. Horretarako, handitan zer izan nahi duten galdetu diegu, eta haien gurasoei beren seme-alabentzat etorkizunean nahi dutenari buruzko galderak egin dizkiegu. Eta Lehen Hezkuntzako ikasleek handitan zer izan nahi duten abiapuntu hartuta, bederatzi lanbideko zerrenda bat eman diegu inkestatutako neska-mutilei, eta zerrendan zer jarri edo kenduko luketen esateko aukera ere eman diegu. 11. taulan ikus daitekeen moduan, aurrez ezarritako bederatzi lanbideez gain, beste zortzi ere sartu ditugu. Guztira, gehien hautatutako aukera futbolaria izatea izan da (%22,6). Bigarrenik, garrantzitsua iruditzen zaigu jasotzea inkestatutako Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen %12,3k ez dakiela zer izan nahi duen handitan. %8k irakaslea izatea aukeratu du; %9,2k, sendagilea izatea; %8,4k, polizia; eta %4,5ek, ile-apaintzailea.

11. taula Handitan zer izan nahi duten, %

LANBIDEA	%
Futbolaria	22,6
Beste zerbait	15,1
Ed/ee	12,3
Medikua	9,2
Polizia	8,4
Irakaslea	8
Ile-apaintzailea	4,5
Margolaria	3,9


LANBIDEA	%
Kantaria	3,2
Suhiltzailea	2,8
Sukaldaria	2,8
Pilotua	2,8
Albaitaria	2,1
Igeltseroa	1,3
Bankuko langilea	0,5
Okina	0,5

30.G. Zer izan nahi duzu handitan?
Iturria: egileek egina

Gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, ikus daiteke alde adierazgarriak daudela sexuaren arabera. Izan ere, futbolariak izan nahi duten mutilak (%34,1) neskak baino gehiago dira (%6,2), eta irakasleak izan nahi duten neskak (%15,2) mutilak baino gehiago dira (%2,4). Hizkuntza-ereduaren arabera ere, ikus daiteke A ereduan matrikulatutakoek neurri handiagoan izan nahi dutela ile-apaintzaileak (%22,7) B ereduan ikasten dutenak baino (%2,9).

Ikasleek institutuan ikasten amaitu ondoren, atzeritar jatorriko gurasoek nahi dutenari dagokionez, hamar familiatik ia zortzik unibertsitatera joan daitezela nahi dute (133. grafikoa); %2,7k lanbide-heziketa ikas dezatela nahi du, eta %2,3k, lanean hastea. Beste erantzun bat aukeratzean (%2,3), seme-alabek aukeratzen dutenarekin edo haiek zoriontsu egiten dituenarekin lotuta egoten da. Ikasten jarraitu dezaten duten interesari buruzko baieztapenen arrazoiei dagokienez, enplegu on bat izatea eta beren bizitzan etorkizun hobea izatearekin lotutako alderdiak agertzen dira, eta, kasu batzuetan, beren seme-alabengan dituzten itxaropenak beteko dituztelako.

133. grafikoa Lehen Hezkuntzako gurasoek institutuaren ondorengo etorkizunari buruz dituzten nahiak, %



72.G. Zure seme-alabak institutua amaitzean zer egitea nahi zenuke?
Iturria: egileek egina

Ondoren, beren seme-alabak zertan lan egitea gustatuko zitzaien galdetu diegu, galdera ireki baten bidez; hau da, ez dugu lanbiderik iradoki zuzenean Lehen Hezkuntzako ikasleei galdera egitean. Erantzun ondoren, benetan zertan lan egin dezakeen uste duen galdetu diegu. 12. taulan ikusten den moduan, hasiera batean ez zekiten zer erantzun (%30,5) eta are gehiago harritu ziren errealistak izateko esan genienean (%38,8k ez zekien zer esan). Bestetik, gehien gustatzen zaien edo motibatu ditzakeen horretan lan egiteko nahiaren tasa %15ekoa da, baina %5,9raino jaitsi da “nahi” hori “ahal” bihurtzean. Beraz, gurasoek onartzen dute ez dela erraza izango haien seme-alabek nahi duten horretan lan egitea, ez eta ikasitakoarekin lotutako lana izango dutenik ere; hain zuzen ere, gertatu dadin nahi dutenaren (%3,7) eta benetan gerta daitekeenaren (%1) arteko aldea 3,7 puntukoa da.

12. taula Seme-alaben etorkizun profesionalari buruzko gurasoen nahia eta errealitate posiblea, %

	NAHIA	ERREALISTA IZANIK
Ed/ee	30,5	38,8
Medikua eta sanitarioa	18,8	13,1
Gustuko duena/nahi duena	15,0	5,9
Irakaslea	4,9	5,9
Futbolaria	4,0	5,8
Ikasitakoa	3,7	1,0
Polizia	3,5	2,6
Ingeniaria	3,2	0,9
Administraria	2,7	1,3
Albaitaria	1,4	3,3
Abokatua	1,4	0,5
Mekanikaria	1,4	0,9
Arkitektoa	1,4	1,8
Ekonomialaria	1,0	1,5
Estetizista eta ile-apaingintza	0,9	1,0
Informatikaria	0,5	3,2
Ahal duenean	0,5	0,9
Artista	0,4	-

74.G. Zure seme-alabak handitan zer lan egitea nahi zenuke?

75.G. Eta errealista izanik, zertan egin dezake lan, zure ustez?


Iturria: egileek egina

Lanbide konkretuei dagokienez, batzuek nahiaren alde gehiago egin dute benetan gertatuko dela uste dutenaren alde baino (ingeniaritzak, osasun-adarra), eta beste batzuek uste dute beren etorkizuna enplegu bat lortzeko moduko lanbideei lotuta

egon daitekeela, horretan lan egiteko nahiari lotuta egon beharrean (informatika, albaitaritza).

Azkenik, inkestatutako familia gehienek hurrengo bost urteetan gutxienez Euskadin geratzeko asmoa dute (%87,2). Soilik %4,6k du bere jatorrizko herrialdera itzultzeko asmoa, eta %1,4k, bere herrialdera batera joateko asmoa. Lurraldera azken aldian (2008tik 2013ra bitartean) iritsitako atzerritar jatorriko populazioaren %9,5ek beste herrialde batera joateko asmoa du, aurreko aldietan iritsitakoetatik nabarmen bereiziz.

134. grafikoa Hemendik bost urtera arteko itxaropenak, %



76.G. Hurrengo bost urteetan, EAEn geratzeko, beste herrialde batera joateko edo zure herrialdera itzultzeko asmoa duzu?
Iturria: egileek egina


Laburbilduz

1. Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleek aukeratutako lanbideetan, alde adierazgarriak daude generoaren arabera; futbolariak izan nahi duten mutilak gehiago dira, eta irakasleak eta ile-apaintzaileak izan nahi duten neskak gehiago dira. Gurasoen aukeraketa aldatu egiten da beren seme-alabek izan dezatela nahi duten lanbideaz edo benetan garatuko dutenez hitz egiten dugunean. Zehazki, uste dute beren seme-alabek aukeratu dezaketen lanbidea gehiago dela nahi bat errealitatea baino.
 2. Inkestatutako atzerritar jatorriko hamar gurasotik zortzik nahi dute beren seme-alabak unibertsitatera joatea, lanbide-heziketako ikasketetan edo zuzenean lan-merkatuan sartzea bigarren planoan utzita.
 3. Hurrengo bost urteetan, gutxienez, Euskadin geratzea ideia orokor bat den arren, 2008tik 2013ra bitartean iritsitakoek itzultzeko asmo handiagoa dute lehenago iritsitakoek baino.
-

Bigarren hezkuntzako itxaropenak

Lehen Hezkuntzako ikasleekin bezala, Bigarren Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasleek beren etorkizun akademikoari eta etorkizuneko lanari buruz dituzten itxaropenak aztertuko ditugu, bai eta haien gurasoenak ere. Institutua amaitu ondoren, Bigarren Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasleen %60,8k unibertsitatera joan nahi du, eta %27,7k, lanbide-heziketa ikasi. Hau da, %88,5ek ikasten jarraitzeko asmoa du. Soilik %1,7k ikusten du bere burua lan-merkatuan. Zehazki, eta gurutzeetako aldagaiak kontuan hartuta, A ereduko ikasleen %50ek lanean ikusten du bere burua, institutua amaitu ondoren. Beste ereduetako ikasleek ez dute kontuan hartu aukera hori. Beraz, aldea adierazgarria da. Bestetik, mutilek neurri handiagoan ikusten dute beren burua lanbide-heziketa ikasten (%43,5) neskek baino (%7,5).


135. grafikoa Bigarren Hezkuntzako ikasleen nahia institutua amaitzen dutenerako, %



55.G. Zer gustatuko litzaizuke egitea institutua amaitu ondoren?
Iturria: egileek egina

Ikasleen etorkizunari buruz beren gurasoek eta irakasleek zer uste duten galdetuta, X. grafikoan ikus dezakegu familiaren kasuan haiek adierazitakoarekiko pertzepzio desberdina dutela, eta irakasleen kasuan, are desberdinagoa. Gurasoen kasuan, atzeritar jatorriko ikasle gehienek uste dute unibertsitatera joan daitezela izango dela (%52,5), baina ikasleek beraiek beren etorkizunaz uste dutena baino neurri txikiagoan. Dena den, lanbide-heziketa ikasteko ideian bat datoz (%27,2) eta familiak pentsatzen duenarekiko ezjakintasuna ere pixka bat handitu da (%14,9). Irakasleen kasuan, ikasleen %49,8k ez daki zer uste duten beren etorkizunari buruz, eta %40,5ek uste du ikastetxearen ustez ikasleak unibertsitate-ikasketekin jarraituko duela. Lanbide-heziketa %6,3ra arte jaitsi da.

136. grafikoa Bigarren Hezkuntzako ikasleen pertzepzioa gurasoen eta irakasleen nahiari buruz, %



56.G. Eta, institutua amaitzean, zer egin dezazun nahi dute zure gurasoek?
 57.G. Eta, institutua amaitzean, zer egin dezazun nahi dute zure irakasleek?
 Iturria: egileek egina

Gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, mutilen %43,5ek pentsatzen du gurasoek uste dutela lanbide-heziketa ikasten amaituko duela. Horretan alde nabarmena dago neskekiko (%7,5). Bestetik, goi-mailako ikasketak dituzten atzerritar jatorriko gurasoen seme-alabek pentsatzen dute familiak ez duela inola ere uste lanbide-heziketa ikasten amaituko dutenik. Bigarren mailako ikasketak eta lanbide-heziketakoak (%40,9) eta lehen mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik gabekoen (%15,3) familiek ez bezala.

Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleei zertan lan egin nahi duten galdetuta, eta ondoren, errealista izanik, non amaituko duten uste duten, zalantzak eta ezjakintasuna izan dira nagusi. Hala ere, ikasleen %6,3k adierazi du ez dakiela zertan lan egitea gustatuko litzaiokeen, eta errealistak izateko eskatu ondoren, datua %24,8ra jaitsi da. 13. taulan azaltzen diren enpleguei dagokienez, alde txiki bat hautematen da nahi dutenaren eta benetan gertatuko dela espero dutenaren artean.

13. taula Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen lan-etorkizunari buruzko nahia eta errealitate posiblea, %

	NAHIA	ERREALISTA IZANIK
Mekanikaria	21,3	16,3
Medikua eta sanitarioa	14,0	11,5
Futbolaria	9,9	0,0
Ile-apaintzailea	8,5	6,6
Ez dakit	6,3	24,8
Abokatua	6,1	6,1
Irakaslea	5,8	5,8

	NAHIA	ERREALISTA IZANIK
Zuzenbida	3,3	3,3
Artista	3,3	0,0
Laguntzailea	3,3	0,0
Administraria	3,3	3,3
Soldatzailea	3,0	0,0
Pilotua	3,0	6,3
Arkitektoa	2,5	2,5
Ingeniaria	2,5	0,0
Farmazialaria	1,9	1,9
Garraiolaria	1,9	1,9
Igeltseroa	0,0	3,3
Teknologia	0,0	3,0
Hezitzailea	0,0	3,3


58.G. Zertan lan egin nahi zenuke handitan?

59.G. Eta errealista izanik, zertan egin dezakezu lan, zure ustez?

Iturria: egileek egina

Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen kasuan bezala, Bigarren Hezkuntzako seme-alaben etorkizuneko lanarekin eta prestakuntzarekin lotutako gaiei buruzko galderak egin dizkiegu gurasoei. 137. grafikoan ikus daitekeen moduan, hamarretik zortzik nahi dute seme-alabek unibertsitatean ikasten jarraitzea, %9,6k lanbide-heziketa ikas dezaten nahi du, eta %4,9k, lanean hastea. Baieztapen horien alde arrazoi hauek eman dituzte: gurasoak baino hobeto bizitzea eta lan bat lortzea. Edo besterik gabe, badakite zer etorkizun nahi duten beren seme-alabek eta haien erabakia babesten dute. Gurutzeetako aldagaiei erreparatuz, ikusten da seme-alabak A ereduan dituzten gurasoen %50en ustez, lan-merkatuan sartuko dira, institutua amaitu ondoren. D ereduan ikasten (%7) dutenekiko aldea adierazgarria da.

137. grafikoa Bigarren Hezkuntzako gurasoek institutuaren ondorengo etorkizunari buruz dituzten nahiak, %



27.G. Zure seme-alabak institutua amaitzean zer egitea nahi zenuke?
Iturria: egileek egina

Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleei zertan lan egin nahiko luketen eta benetan zertan lan egiten ikusten duten beren burua galdetu diegun moduan, bi galdera horiek egin dizkiegu haien gurasoei ere. 14. taulan ikus daitekeen moduan, seme-alabek nahi duten ikasteko nahia %31,1etik %5,8ra jaisten da, errealistak izateko eskatzen diegunean. Gainera, zalantzak areagotu egiten dira etorkizunean benetan zertan lan egingo duten pentsatzen dutenean (%46,6). Gainerako lanbideei dagokienez, ez dugu alde adierazgarririk hauteman nahiaren eta errealitatearen artean, kontuan hartuta Bigarren Hezkuntzako ikasleekin hitz egiten ari garela, eta familiek argiago izan dezaketela zein izan daitezkeen beren lehentasunak; Lehen Hezkuntzako ikasleekin ez zen gauza bera gertatzen, orain baino askoz urrunagoko etorkizunerako gurasoek zituzten itxaropenak garbiago sumatu zitekeelako.

14. taula Seme-alaben etorkizun profesionalari buruzko Bigarren Hezkuntzako gurasoen nahia eta errealitate posiblea, %

	NAHIA	ERREALISTA IZANIK
Gustuko duena/nahi duena	33,1	5,8
Irakaslea	6,6	6,6
Medikua	7,4	8,2
Ingeniaria	5,5	-
Informatikaria	3,0	6,1
Administraria	6,3	-
Komunikazioa	3,3	-
Lanpostu ona	3,3	-
Arkitektoa	1,9	2,5
Ahal duenean	3,0	3,3
Abokatua	6,3	6,3

	NAHIA	ERREALISTA IZANIK
Pilotua	3,0	3,0
Ile-apaintzailea	1,9	-
Farmazialaria	1,9	-
Ez dakit	13,3	46,6
Mekanikaria	-	3,3
Enpresaburua	-	1,9
Soldatzailea	-	3,0


74.G. Zure seme-alabak handitan zer lan egitea nahi zenuke?

75.G. Eta errealista izanik, zertan egin dezake lan, zure ustez?

Iturria: egileek egina

Azkenik, bost urte barruko etorkizunari buruzko galderari dagokionez, Euskadin bizitzen jarraitzeko asmoa duten, beste herrialde edo autonomia-erkidego batera joateko asmoa duten edo beren jatorriko herrialdera itzultzeko asmoa duten galdetuta, Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen familiek Euskadin geratzeko asmoa dute (%88,1), eta ez dute beste aukerarik aurreikusten, zer egin behar dutenek ez dakitenek salbu (%11,9)

138. grafikoa Hemendik bost urtera arteko itxaropenak, %



76.G. Hurrengo bost urteetan, EAEn geratzeko, beste herrialde batera joateko edo zure herrialdera itzultzeko asmoa duzu?

Iturria: egileek egina

Laburbilduz

1. Bigarren Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasle gehienek ikasten jarraitze-ko asmoa dute, institutua amaitu ondoren. Zehazki, %60k unibertsitatera joan nahi du. Ikasleek, beren iruditerian, gurasoen nahia ere ikasten jarraitu dezatela dela hautematen dute; hala ere, unibertsitatera joateko aukera txikiagoa da. Bestetik, ikasleen erdiek ez dakite zer espero duten irakasleek beraiegandik etorkizunean. Goi-mailako ikasketak dituzten familietako ikasleek uste dute ez dutela lanbide-heziketa ikasiko, eta ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten familietakoek uste dute lan-merkatuan sartuko dituztela. Bestetik, mutilek neskek baino neurri handiagoan uste dute haren familiek lanbide-heziketa ikas dezatela nahi dutela.
 2. Gehienetan, bizibidea ateratzeko izan nahi duten lanbidea desiratuagoa da benetan hori gertatuko den galdetzea baino. Etorkizunean izan dezaketene lanbideari buruz errealistak direnean, zalantzak handitu egiten dira.
 3. Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan bezala, atzerritar jatorriko hamar familiatik zortzik beren seme-alabak unibertsitatera joatea nahi dute. Seme-alabek lanbideari buruzko nahiaren eta benetan zer izan dezaketene lanbidearen artean aukeratu beharraren aurrean, aldeak ez dira hain adierazgarriak. Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen kasuan bezala; dena dela, badirudi errealistak direla benetan egin nahi duten lanean jarduteko aukerei dagokienez.
 4. Atzerritar jatorriko ikasleen familiak hemendik bost urtera bitartean aurreikusten duten aukera bakarra Euskadin geratzea da. Baina zalantza gehiago dituzte beren buruaz Lehen Hezkuntzako ikasleen familiek baino.
-



Laburpena eta ondorioak

Txosten honetan zehar, atzerritar jatorriko ikasleen eta haien gurasoen pertzepzioak eta errealitateak bildu ditugu, haien hezkuntza-, familia-, identitate- eta gizarte-errealitatea eta etorkizuneko errealitatea ezagutzeko. Halaber, atzerritar jatorriko ikasleen eta jatorri autoktonoko ikasleen emaitzak alderatuz, egiaztatu ahal izan dugu alde adierazgarriak daudela bi talde horien artean, bigarren belaunaldi esaten zaionaren egoera bereizgarriak nabarmenduz.

Emaitzek serie honetako beste txosten batzuetan jasotako gai batzuk berretsi dituzte, eta maiz agertu izan dira eremu honetako beste ikerketa batzuetan. Arrakala bat dago atzerritar jatorriko eta jatorri autoktonoko familien artean, hezkuntza- eta ekonomia-aldagaietan oinarritua batik bat, ondorengoengan eragiten duena. Gainera, ondorengo horiek beren egoerei aurre egin behar diete; adibidez, identitate berri bat sortzeko beharrari. Eta, azken batean, euskal errealitate anitzean beren lekua aurkitu behar dute. Prozesu konplexua da etorkinen seme-alabentzat, sarritan bizi diren gizarteko herritartzat hartzen ez direnak erabat (Barquín, 2009)⁴.

Azterketa honetatik ateratako eta jarraian laburbilduta erakusten dugun informazioak azken urteetan EAEn sortu den errealitate berri hori hobeto ulertzen laguntzen digu. Ezinbesteko urratsa da gero eta handiagoa den aniztasuna behar bezala kudeatzeko eta ekintza politikotik egokiak direla iritzita hartutako neurriak inplementatzeko.

⁴ Barquín, A. (2009). Nongoak dira etorkinen seme-alabak? Identitatea eraikitzea ikastetxean. In Revista educar, 81-93.

ALDERDI OROKORRAK

Atzeritar jatorriko ikasleen Lehen eta Bigarren Hezkuntzako hizkuntza-ereduari dagokionez, gehienak D eta B⁵ eredueta matrikulatuta daude. Bigarren Hezkuntzan, A eredurako joera handiagoa hautematen da, eta Lehen Hezkuntzan, D ereduak da nagusi. Beraz, badirudi belaunaldi gazteenak neurri handiagoan ari direla euskarazko ereduari matrikulatzen.

Familiak ikasleak zer ikastetxe-motatan (publikoa edo itunpekoa) matrikulatzen dituzten kontuan hartuta, atzeritar jatorriko familietan alde handiak aurkitu ditugu Lehen eta Bigarren Hezkuntzako matrikulazioen artean. Lehen Hezkuntzan, gehienek ikastetxe publikoa aukeratu dute, eta Bigarren Hezkuntzan, ikastetxe publikoaren eta itunpekoaren banaketak antzekoak dira. Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren arteko alde horrek eta nagusi den ikastetxe-motak zerikusi handia izan dezake hizkuntza-ereduarekin: itunpeko ikastetxeek A eta B eredueta plazar eskaintzen dituzte normalean, eta beraz, aukera interesgarria izan daiteke Bigarren Hezkuntzako pertsonentzat, neurri handiagoan, eredu hori nahiago dutelako.

Gurasoen giza kapitala funtsezkoa da atzeritarren ondorengoen dinamikak ulertzeko; izan ere, hainbat egileren arabera, zenbat eta handiagoa izan gurasoen giza kapitala, hainbat eta handiagoak izango dira seme-alaben aukera eta helburuak (Aparicio eta Portes, 2014). Atal honetan, giza kapitalaren bi alderdi aztertuko ditugu: lan-egoera eta prestakuntza-maila. Lehenik eta behin, atzeritar jatorriko ikasleen gurasoen ikasketa-mailan derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzaren presentzia handiagoa da. Aldiz, familia autoktonoetan goi-mailako ikasketak presentzia handiagoa du.

Bigarrenik, lan-egoerari buruzko datuek erakusten digute atzeritar jatorriko guraso gehienak lanean ari diren arren, lanik gabeko pertsonen kopurua nabaria dela pertsona autoktonoen tasarekin alderatuz gero. Oro har, atzeritar jatorriko familien diru-sarrerak familia-errentetatik datoz neurri handian, eta soilik 10 familietatik 2 bizi dira gizarte-laguntzetatik. Familien erdiak baino pixka bat gehiago alokairuan bizi dira. Joera hori ez da agertzen familia autoktonoen kasuan, etxebizitza baten jabe izatea baita nagusitzen dena.

Jatorri nagusia latinoamerikarra da, Lehen Hezkuntzan zein Bigarren Hezkuntzan. Hala ere, atzeritar jatorriko haurren jatorriari erreparatzen badiogu, argazkia errotik aldatzen da: Lehen Hezkuntzan 10 haurretik 9 Estatuan jaioak dira, eta Bigarren Hezkuntzan, 10etik 5. Bigarrenen artean, pisu handieneko jatorriak Latinoamerika eta Magreb dira.

⁵ Argitze aldera, hiru dira euskal hezkuntza-sareko hizkuntza-ereduak:

- D ereduak: Irakasgai guztiak euskaraz ematen dira eta gaztelania beste irakasgai bat da.
- B ereduak: Irakasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz (normalean, matematika eta irakurtzen eta idazten ikastea).
- A ereduak: Irakasgai guztiak gaztelaniaz ematen dira eta euskara beste irakasgai bat da.

HEZKUNTZA-ESPARRUA

Ikasgeletan atzeritar jatorriko ikasleak biltzea eztabaida publikoko gaia bihurtu da EAEn. Dena den, badirudi protagonistek (ikasleek) ez dutela gai gatazkatsutzat hartzen. Lehen Hezkuntzako atzeritar jatorriko ikasleek hautematen dute kultura-aniztasuna beren ikasgelan; hala ere, hautemate hori ez da hain nabaria itunpeko sareko ikastetxeetan ikasten dutenen artean. Bigarren Hezkuntzaren kasuan, ikasleek jarrera tolerantea dute kultura-aniztasunarekiko, eta ez dute hautematen etorkinen gehiegizko presentzia ikastetxean; hala ere, probableagoa da hori gertatzea A ereduko ikasleen artean. Gainera, atzeritar jatorriko ikasleak pozik daude ikastetxearekin eta ikasgelako harremanekin, eta gatazkak izaten diren arren, ez dira maiz gertatzen.

Hezkuntza-errendimenduari dagokionez, Lehen Hezkuntzan zein Bigarren Hezkuntzan, atzeritar jatorriko ikasleek, oro har, ikasle ontzat dute beren burua. Hala ere, matematika eta euskara irakasgai zailagoak iruditzen zaizkie; jatorri autoktonoko ikasleentzat, berriz, atzerriko hizkuntzak dira zailenak. Euskal testuinguruan, bi hizkuntza ofizial izanda, gai hori oso garrantzitsua da; eta beraz, haietako bat ez jakiteak lan-aukerak, kultura-ekoizpena eta integrazioa galtzea eragiten du.

Atzeritar jatorriko ikasleek eskola-jardueretan eta eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeari dagokionez, Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan, gehienek hartzen dute parte ikastetxean antolatutako jardueretan eta eskolaz kanpoko jardueretan. Gehienak kirolarekin lotutakoak diren arren, hizkuntzak eta eskola-laguntzako klaseak ere agertzen dira. Zehazki, eskolaz kanpoko azken jarduera hori da A ereduko ikasleek neurri handienez aukeratu dutena. Bigarren Hezkuntzaren kasuan, ikasleen hiru laurdenek ikastetxeak proposatutako eskola-jarduera osagarrietan parte hartzen dute, eta antzeko proportzio batek jardueraren bat egiten du ikastetxetik kanpo, bere kasa. A ereduko ikasleek gutxiago hartzen dute jardueretan beste hizkuntza-eredu batzuetan matrikulatutakoek baino. Kirol-jarduerak dira ohikoenak; eta ondoren, eskola-laguntza eta hizkuntzak.

Ikastetxea aukeratzeko orduan, Lehen Hezkuntzan zein Bigarren Hezkuntzan, etxetik hurbil egotea da gurasoek kontuan hartzen duten lehen irizpidea; eta bigarrena, ikastetxearen kalitatea. Ikastetxearen aukeratzeko erabakian parte ez hartzea neurri handiagoan gertatzen da lehen mailako ikasketak dituzten edo ikasketarik gabeko gurasoen artean.

Azkenik, gurasoek ikastetxearekiko duten harremanari dagokionez, ikastetxerako familiako erreferentzia den pertsona ama izaten da, baina familia autoktonoetan aitaren presentzia handiagoa da atzeritar jatorriko familietan baino. Bestetik, azken horiek diote nahiko harreman dutela ikastetxearekin. Atzeritar jatorriko familien eta euskal jatorrikoen egoera horrek familiako kargak neurri handienez emakumeengan uzten dituen egiturazko genero-desberdintasun bati erantzuten dio (Emakunde, 2007).

FAMILIA-ESPARRUA

Atzerritar jatorriko ikasleen familia-esparrua ezagutzea oso garrantzitsua da haien egungo egoera ulertzeko. Atzerritar jatorriko familien etxeetan pertsona gehiago bizi dira, batez beste, familia autoktonoen etxeetan baino. Familia-moten artean ere alde adierazgarriak daude; atzerritar jatorriko ikasleen artean, guraso bakarreko familiak gehiago dira eta seme-alaben kopurua handiagoa da.

Lehen Hezkuntzan zein Bigarren Hezkuntzan, ikasle gehienek diote giro ona dutela etxean. Hala ere, etxean hautematen duten egoera ekonomikoa hobe da familia autoktonoen kasuan. Itunpeko ikastetxeetan egoera ekonomiko “erosoa” dutela dioten familia gehiago daude ikastetxe publikoetan baino.

Atzerritar jatorriko ikasleek etxean izaten duten eskola-laguntzari erreparatuz, Lehen Hezkuntzan zein Bigarren Hezkuntzan, tutoreek edo gurasoek ikasleen eskola-jarduerari buruzko interes handia erakusten dute. Etxeko lanetan laguntzeari dagokionez, aldeak daude bi zikloen artean. Lehen Hezkuntzako ikasleen artean, gurasoak dira eskola-zereginetako laguntza nagusia, eta afrikar eta txinatar jatorriko ikasleak dira laguntza gutxien izaten dutenak. Inoren laguntzarik izaten ez duten ikasleak Bigarren Hezkuntzan izaten dira ugariagoak, eta gurasoen ikasketamaila txikiagoa (lehen mailako ikasketak edo ikasketarik ez) duten familietan, are ugariagoak.

IDENTITATEA ETA INTEGRAZIOA

Bigarren belaunaldi izenekoak “liminilatite” egoeran daude; hau da, pertsonak zenbait kultura-testuingururen artean oszilatzen, eta, azkenik, zenbait jatorritako kultura-ezaugarri batzuk hartuta identitate berri bat eratuz (Bennet, 2013). Nazio-identifikazioaz galdetzean, identitate hori zehazte aldera, datuak konplexutasun hori erakusten digute: Lehen Hezkuntzako atzerritar jatorriko ikasleen artean, gehienak euskaldun edo espainiar gisa identifikatzen dira; hala ere, Bigarren Hezkuntzaren kasuan, ia erdiek gurasoen jatorriko herrialdea aipatzen dute beren pertenezia zehazteko, baina, afrikar jatorriko ikasleen artean, beren burua euskalduntzat dutenen tasa handiagoa da.

Erljioari eta erlijio-praktikei dagokionez, gai horiek presenteago daude atzerritar jatorriko familietan familia autoktonoetan baino; batik bat, Afrikatik etorritako familien artean. Gurasoek erlijiozaleagoak direla diote seme-alabek baino.

Jatorriko ohiturak eta tradizioak transmititzea, oro har, gai garrantzitsua da atzerritar jatorriko familientzat, eta, bereziki, Afrikatik etorritakoentzat. Ekialdeko Europatik etorritako familientzat garrantzi txikiagoa du.

Bigarren Hezkuntzako ikasleei beren integrazioari buruz galdetuta, euskal gizartean hautemandako integrazio-maila handiagoa da Ekialdeko Europako eta asiar jatorriko ikasleen kasuan. Latinoamerikar eta afrikar jatorriko ikasleen kasuan da txikiena integrazio-maila. Ikasleen artean aldeak daude: goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alabek eta A ereduan matrikulatutakoek integratuago daudela diote beste ikasketa-maila batzuetako gurasoen seme-alaben edo beste eredu batzuetan matrikulatuta daudenen kasuan baino.

GIZARTE-HARREMANAK

